
**Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia
2004**



**Memoria
2004
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia**



**Mémoire
2004
Académie de la Langue Basque
Euskaltzaindia**





Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia

2004

Bilbo, 2005

Testu-idazketa: Pello Telleria, Amaia Okariz, Itziar Rekalde.
Testu gainbegiratzea: Xabier Kintana

© Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
E-mail: info@euskaltzaindia.net
Webgunea: www.euskaltzaindia.net

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Muros de San Pedro, nº 4. 48007 Bilbo

Inprimategia: Baster S.L.L.
Atxukarro Poligonoa, 2. 48480 Arrigorriaga (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-3128-05

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
I. Erakundearen jarduerak	9
I.1. Akademiaren jarduerak	11
I.2. Batzar bereziak	17
I.3. Kanpoko jarduerak	19
I.4. Euskaltzaindia erakundeetan	25
I.5. Sariak eta omenaldiak	27
I.6. Heriotzak	31
I.7. Hilberri txostenak	33
I.8. Izendapenak eta ordezkapenak	35
II. Akademia-jarduera	39
II.1. Hiztegi-gintza	43
<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH)	43
Hiztegi Batua	47
II.2. Gramatika	49
II.3. Dialektologia (Euskararen herri hizkeren atlasa)	51
II.4. Onomastika	57
II.5. Literatura	61
Herri Literatura	61
Literatura Ikerketa	63
Sariketak	65
II.6. Euskara Batua	69
II.7. <i>Jagon saila</i>	71
<i>Corpus</i> alorreko lanak	71
Sustapen alorreko lanak	75
III. Erakunde zerbitzuak	79
III.1. Egoitza eta ordezkariak	81
III.2. Azkue Biblioteka Azkue	91
III.3. Argitalpenak	97
IV. Aurrekontuak	103
IV.1. Balantzea	105

V. Herri Administrazio eta erakundeak	107
V.1. Eusko Jauriaritza eta hiru diputazioak	109
V.2. Nafarroako Gobernua	110
V.3. Estatu Administrazioa	112
V.4. Iparraldeko Herri Aginteak	113
V.5. Udalak	113
V.6. Unibertsitateak	116
V.7. Baionako <i>Iker</i> taldea	117
V.8. Euskaltel	117
V.9. EiTB	117
V.10. Euskal Herriko ikastolen konfederazioa	118
VI. Euskaltzaindiaren organigrama	357
VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak	359
VI.2. Batzordeen zerrenda	361
VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama	365
VI.4. Helbideak/Aurkitegia	369

Aurkezpena

Euskal arloan diren egiteko ugari eta premiazkoen artean Euskaltzaindiari dagozkionak ez dira gutxi. Hor dira, besteak beste, Euskararen ondareko hitz eta esaera tradizionalak bildu eta sailkatzea, Euskara Batuaren lexikoa hautatu eta finkatu beharra, Toponimia, Onomastika eta Exonomastika azterketak, hizkuntza batu estandarraren eta herri mailan erabiltzen diren tokian tokiko dialekto literarioen arteko oreka mantentzeko bidea proposatzea.

Bestaldetik, literatura ikerketak, gure Herriko administrazioek hizkuntzari buruz egiten dizkiguten eskariei bana-banako galdera bereziak erantzutea, erakundeekiko eta beste Hizkuntz Akademia batzuekiko harremanak mantentzea, Akademiaren beraren barruko antolakuntza, administrazio eta gobernuak, idazle eta ikertzaileen urteurrenetako ospakizun publikoak ahortzi gabe.

Maiz, era askotako zereginotan buru-belarri murgildurik egonez, eguneroko lantxo konkretuek euskaltzainoi begiak lausotu eta ez digute uzten ondo ikusten denboran zehar Akademiak ekinaren ekinez metatzen diharduen obra mardul eta luzea. Hori dela eta, on da, hemen ere, eta onerako, gaez egindako lan isila eguargiaz ager dadin, urteroko **oroitidazkiak** Euskaltzaindia pausoz pauso eta etenik gabe eginez eta doan lan ugariak guztion begien aurrean jartzea, gure emaitzen perspektiba gal ez dezagun.

Oraingoan ere, Euskaltzaindiaren batzorde eta azpibatzerdeen ohiko lan baliotsuez gainera, 2004. urtean badira beste gertakari nabarmen batzuk, bereziki aipatu beharrekoak.

Lehenengo eta behin, gogoratu behar da Andolin Eguzkitza euskaltzainaren heriotza, urtearen hasieran gertatua, bai eta beronen orde z aukeratu zen euskaltzaina berria: Adolfo Arejita jauna.

Akademi ospakizunei jarraikiz, bereziki azpimarratzekoa da, izandako oihartzun sozial eta garrantziagatik, Jose Luis Lizundia Askondo euskaltzainaren sarrera-hitzaldia, Gerediaga-ren egoitzan Abadiñon, (Bizkaian) eskainia.

Beste aldetik, Jean Haritschelharrek, aspaldiko hamasei urteotan euskaltzainburu izan ondoren, bere burua akademi karguetarako berriro ez aurkeztea erabaki ondoren, urtearen bukaeran hauteskunde berria egin eta Andres Urrutia Badiola izendatu zen euskaltzainburu, bestelako kargudunekin Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako gainerako kideak berriztatuak gertatuz.

Jagon Sailak bideraturik, azken aldean literatur euskara batuaren orde z zenbaitzuek euskalkien erabilera orokortu nahi luketela ikusita, Euskaltzaindiak euskalki eta herri hizkerari buruzko adierazpen bat plazaratu zuen, modalitate biok elkarren aurka egon barik bakoitzaren erabilera eremuak banatuz, batak bestea aberats dezan.

Euskal Herria izenari buruzko araua, lehendik onartua, zerbait ukitu zen, datu gehiagoz hornitzeko, horien artean Joan Perez Lazarraga XVI. mendeko idazle arabarraren eskuizkribuak emandako lekukotasun goiztiarra.

Iaz Kataluniako Generalitat-ek Bartzelonan garrantzi handiko kultur ekitaldia antolatu eta horra Espainiako hizkuntz akademia guztien ordezkariak gonbidatu zituen. Euskaltzaindiaren izenean A. Urrutiak eta J.L. Lizundiak parte hartu zuten, gure hizkuntzaren egoera eta gure Akademiaren zereginak jakinarazteko.

Nafarroako Parlamentuan ere presente izan zen Euskaltzaindia, Foru-Organoren eskaturik, Nafarroan euskarak duen egoera azaltzeko. Txostengilea eta aurkezlea Andres Iñigo izan zen, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria.

Eliza eta euskara gaia dela eta, aurreko urteetan beste diozesietan hasiriko azterketari jarraituz, oraingoan Gasteizko elizbarrutian izandako egoera ikertu zen, eskualde horren problematika, bilakabide eta arazoak jorratuz.

Zinez espero dugu 2004.eko **Oroitidazki** honek bai Akademiaren kideei, bai Euskaltzaindiarekin harreman zuzena duten erakunde publiko zein pribatuei eta, oro har, euskal kulturaren interesaturiko pertsona orori ere gure erakundeak 2004.eko urtean buruturiko ekintza nabarmenak helarazi ahal izango dizkiela.

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

I. Erakundearen jarduerak

I. ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.1. AKADEMIAREN JARDUERAK

Diruzain berria izendatu

Urtarrilaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundian egindako osoko bilkuran, Jose Antonio Arana Martijak utzitako kargua betetzeko, Jose Luis Lizundia Askondo izendatu dute euskaltzainek.

Garapen iraunkorra

Urtarrileko bilera berean, *Garapen iraunkorra* terminoa hobetsi du Euskaltzaindiak “naturari kalte larriak egin gabe manten daitekeen garapena” adierazteko.

Andolin Eguzkitzaren hutsartea iragarri

Euskaltzaindiaren arautegia betez, martxoaren 26ko osoko bilkuran, Andolin Eguzkitza euskaltzain hil berriaren hutsartea iragarri du Euskaltzainburuak.

2004. urteko ospakizun nagusien arduradun akademikoak

Zuzendaritzak honako euskaltzain hauek izendatu ditu ondoren adierazten diren ekitaldien arduradun akademiko bezala:

- Apirilaren 1ean, Mikel Zarateren omenezko ekitaldirako, Andres Urrutia.
- Ekainaren 24an, M. Harrieten mendeurrenerako, Pierre Charriton eta Beñat Oihartzabal.
- Uztailaren 23an, J. L. Lizundiaren sarrera-hitzaldirako, Xabier Kintana.
- Irailaren 17an, *Nafarroa Oinez* dela eta, Lizarrako ekitaldietarako, Andres Iñigo.
- Azaroaren 26an, Gasteizen egingo diren osoko bilkura eta *Jagon* Jardunaldietarako, Henrike Knörr.



Lezamako Udalaren kultura aretoan, 2004-IV-1ean, Mikel Zarateren omenaldia.

Ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Karmelo Etxenagusia, Jean Haritschelhar, Luis Ramon Alvarez eta Andres Urrutia.

Ageriko bilkura Lezaman

Mikel Zarateren heriotzaren 25. urteurrena dela eta, apirilaren 1ean, Lezamako Udaletxeko Kultur Aretoan egin da ageriko bilkura. Luis Ramon Alvarez alkatearen ongi-etorriaz, Lourdes Prudenzi *Zorriketan Euskara Elkarteko* buruarenaz eta Jean Haritschelharren agurraz, hasiera eman zaio ekitaldiari. Ondoren, honako hizlariok irakurri dituzte beren txostenak:

- Karmelo Etxenagusia: "Mikel Zarate, eliz idazlea".
- Jose Luis Lizundia: "Mikel Zarate, bizkaieraren eta euskara batuaren arteko zubigintzaren estratega".
- Andres Urrutia: "Mikel Zarateren irakasbidea".
- Bukatzeko, *Ekidazu* herriko abesbatzak zenbait abesti eskaini ditu.

Akademiaren estatus juridikoa Frantzian

Euskaltzainburuak, Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko Presidentea den Alain Lamassoure-ri idazki bat egin dio, non Euskaltzaindiaren estatus juridikoa eta finantziabideak berraztertzea eskatzen den.

Gotzon Egañari brontzeko domina

Zuzendaritzak hartutako erabakiaren arabera, Gotzon Egañak Akademiaren Brontzeko domina jaso du. Ekintza honen bidez Euskaltzaindiak, Azkue Bibliotekari egin dion eskaintza eskertu nahi izan dio: Ovidioren *Maitebidea* liburuaren itzulpena, Andima Ibinagabeitiak eta Gotzon Egañak elkarri idatzitako gutunak eta Txomin Peillen eta Robert Peillenekin izandakoak.

Exonomastika batzordearen arduraduna

Onomastika batzordeak proposatuta, Exonomastika azpibatzeraren arduradun Jose Luis Lizundia Askondo izendatu du Zuzendaritzak, maiatzaren 27ko bileran.

Maurice Harrieten omenezko bilkura

Ekainaren 24an, Larresoroko Pelereña liburutegian egin du Euskaltzaindiak ageriko bilkura eta honako hizlariok parte hartu dute:

- Henrike Knörr: "Maurice Harriet euskalaria eta euskaltzalea, 1814-1904".
- Arantxa Irigoyen: "Maurice Harrieten hiztegiaren berezitasunak".



Larresoroko Pelereña liburutegian, Maurice Harrieten mendeurrean, 2004-VI-24an.

Ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr eta Jean Haritschelhar.

- Pierre Andiazabal: "Maurice Harrieten liburutegia".
- Iranzu Epelde: "Larresoroko eskuara".
- Piarres Charritton: "Maurice Harrieten familia".

Bilera berean, jarraiko hilberri txostena irakurri du Jean-Louis Davant euskaltzainak: "Manex Goyhenetche zenaren oroitzapena".

Ageriko bilkura hau hasi baino lehen, Haltsun, Akademiak oroitarria jarri du Harrieten *Etxeberrria* sortetxean: *Etxe honetan sortu, bizi eta hil izan den Maurice Harriet (1814-1904) euskaltzale handiari*. Euskaltzaindiak 2004-06-24.

Adolfo Arejita euskaltzain berria

Ekainaren 25ean, Larresoron, Euskaltzaindiak egin duen osoko bilkuran, Adolfo Arejita hautatu da euskaltzain oso, Andolin Eguzkitzak utzitako hutsartea betetzeko.

Ageriko bilkura Lizarran

Aurtengo *Nafarroa Oinez* dela eta, irailaren 17an, ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak Lizarrako Fray Diego Kultur Etxean, honako egitaraua betez:

- M^a Josefa Fernández, alkate andrearen ongietorri-hitzak, Jaime Garin Kultura zinegotziak irakurri ditu.
- Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren "agurra".
- Andres Iñigo: "Euskara Estellerrian".
- Patxi Salaberri Zaratiegi: "Toponimia Estellerriko euskararen argigarri".
- Iñaki Camino: "Estellerriko euskara Arabako eta Nafarroa Garaiko hizkeren bidegurutzean".
- 'Azken hitzak', Iñaki Astigarraga Ikastolako presidenteak egin ditu.



Lizarran, Fray Diego Kultur Etxean, **Nafarroa Oinez** dela eta, 2004-IX-17an.

Ezkerretik eskuinera: Patxi Zabaleta, Andres Iñigo, Jaime Marín, Jean Haritschelhar, Iñaki Astigarraga, Iñaki Camino eta Patxi Salaberri.

Zilarrezko domina ematea

Aurten Gema Insaustik eta Itziar Rekaldek, Iruñeko eta Gasteizko ordezkarietzako langileek hogeita bost urte bete dituzte Akademian. Hori dela eta, Euskaltzaindiak erakun-

dearen zilarrezko domina bana eman die, Gasteizen, azaroaren 26an egindako osoko batzarrean. Bi langile hauentzako esker oneko hitzak izan ditu Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.



Gasteizko ordezkartzan, Itziar Rekalderi eta Gema Insaustiri Euskaltzaindiaren zilarrezko domina ematean, 2004-XI-26an.

Ezkerretik eskuinera: Itziar Rekalde, Jean Haritschelhar, Gema Insausti eta Jose Luis Lizundia.

Ohorezko euskaltzainen izendapena

Gasteizen osoko bilkuraren barruan ohorezko euskaltzain hauek izendatu dira: Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”, Pello Apezetxea Zubiri, Koldo Artola Kortajarena,



Egoitzan, euskaltzain ohorezko berriei diplomak banatzerakoan, 2004-XII-17an.

Ezkerretik eskuinera: Bittor Oroz, Andres Urrutia, Joseba Intxausti, Pello Apezetxea, Jean Haritschelhar, Federico Barrenengoa, Joseph Camino-Hasquet, Jean-Baptiste Dirassar, Jon Lopategi eta Koldo Artola.

Federico Barrenengoa Arberas, Joseph Camino-Hasquet, Jean-Baptiste Dirassar-Hiriart Urruty, Joseba Intxausti Errekondo, Jon Lopategi Lauzirika, Francisco J. Oroz Arizkuren, Jean-Baptiste Orpustan eta Karmele Rotaetxe Amusategi. Diploma-ematea abenduaren 17an egin da egoitzan.

Zuzendaritza berria

Abenduaren 17an, bilkura berezia egin du Euskaltzaindiak, egoitzan, hurrengo lau urteetarako Zuzendaritza izendatzeko. Bozketa egin ondoren, euskaltzain hauek izan dira hautatuak:

Euskaltzainburua: Andres Urrutia

Buruordea: Beñat Oihartzabal

Idazkaria: Xabier Kintana

Diruzaina: Jose Luis Lizundia

Iker Sailburua: Henrike Knörr

Jagon Sailburua: Andres Iñigo



Egoitzan, Zuzendaritza berria, 2004-XII-17an.

Ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Xabier Kintana, Andres Urrutia, Beñat Oihartzabal eta Henrike Knörr.

I.2. BATZAR BEREZIAK

Jose Luis Lizundia euskaltzainaren sarrera-ekitaldia

Uztailaren 23an egin da Jose Luis Lizundia euskaltzainaren sarrera-ekitaldia Abadiñon, Gerediagako Salbadore batzar-etxean.

Sarrera-ekitaldiaren egitaraua betetz, Nekane Alonso Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiko lehen idazkaria eta Javier Uriarte Abadiñoko alkatea mintzatu dira lehenik, eta Xabier Kintana idazkaria, ondoren.

Jarraian, Jose Luis Lizundia euskaltzainak bere sarrera-hitzaldia irakurri du, “Euskal kulturgintza 60ko hamarkadan” izenekoa. Arlo hauek ukitu ditu hizlariak: Lehenik, Jose Mari Satrustegi eta Andolin Eguzkitza euskaltzain hil berrien gorazarrea egin du, eta ondoren, 1960ko hamarkadako kulturgintzaren arlo hauez aritu da: Euskaltzaindiaren biltzarrak eta barne-egituratzea, euskal kantagintza, euskal artistak, dantza, antzerkia, folklorea, euskarazko klaseak eta alfabetatze-kanpainak, ikastolen sorrera, euskara batua, Gerediaga Durangoko Merindadeko Adiskideen Elkartearen sorrera eta, Liburu eta Disko Azoka, azkenik. Ondorio gisa, garai hartako kulturgintzaren ezaugarriak aipatu ditu: posibletasuna, hiritartasuna, zeharkatasuna, batasuna eta naziotasuna.



Abadiñon, Gerediagako Salbadore batzar-etxean, 2004-VII-23an. Jose Luis Lizundia sarrera-hitzaldia irakurtzen.

Segidan, Jean-Louis Davant euskaltzainak bere erantzun-hitzaldia egin du. Hasteko, Euskal Herriko bi muturrak aipatu ditu, Mendebaldea eta Zuberoa, eta euskara batuaren garapenean bi alde horiek izan duten eragina. Jose Luis Lizundiak kulturgintzan izan duen emaitzaz aritu da, ondoren: lehenik, Euskaltzaindiaren barneko egituratzean egin duen lan bikaina, batez ere Onomastika arloan egindako ikerketak eta euskal kulturako beste hainbat arlotan eta politikan emandako urratsak. Amaitzeko, Akademiaren etorkizunaz hitz egin du Davantek eta erreformak egin beharra aipatu du.

Azkenik, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak diploma eta domina eman dizkio Jose Luis Lizundiari eta euskaltzain guztiek besarkada bana eskaini diote. Abadiño, Garai, Izurtza eta Mañariako Udalek eta Gerediaga Elkartek opari bana eman diote euskaltzain berriari. Opariak ematerakoan eta, gero, kanpoan, txistulariek, Kriskitin Dantza Taldeak eta koplariak, musika, dantza eta koplak eskaini dituzte J. L. Lizundiaren omenez. Horren guztiaren aurkezpena Jose Mari Iriondo euskaltzain urgazle eta kazetariak egin du.

1.3. KANPOKO JARDUERAK

Gotzon Aurrekoetxea Udako Euskal Unibertsitatean

Atlasgintza lantaldeko arduradunak, HIZTEK graduondoko programaren mintegi barruan, Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) aurkeztu du Unibertsitate honen Ikastetxe Nagusian, urtarrilaren 30ean.

Nafarroaren Eguna

Apirilaren 23an, *Nafarroaren eguna* ospatzeko Basaizea Elkartek antolatutako ekitaldien artean, Jean-Louis Davant euskaltzainak Antso III.a Nagusiari buruzko hitzaldia eman du Baigorriin.

Davant jaunak *Antso III.a Handia pastoral*a idatzi eta estreinatu du, uztailearen 25ean, Mauleko Kirol Zelaian eta harrez gero beste lau emanaldi izan ditu: uztailearen 25ean eta abuztuaren 1ean, Maulen; abuztuaren 21ean, Hondarribian eta irailaren 12an, Amurrión.

Donostiako Kutxan

Apirilaren 24an, Jose Luis Lizundia euskaltzaina “Hizkuntza, identitatea eta aniztasuna euskal gizartean” gaiaz mintzatu da Donostiako Kutxako *Arrasate* aretoan, Ezker Batua alderdiak antolatu dituen “Identidades nacionales y pluralismo” izenpeko jardunaldietan.

Euskaltzaleen Biltzarra Elkarterekin Baionan


“Politika izaera Euskal Herritik ikusirik” deritzon txostena irakurri du Piarres Charriton euskaltzainak, apirilaren 24an, Baionako Elkartetxean, Euskaltzaleen Biltzarrak gonbidaturik.

Euskararen Fonoteka

Maiatzaren 14an, Nafarroako Gobernuak Euskararen fonoteka aurkeztu du, Nafarroako euskalkiak biltzen dituen proiektua. Bertan, azken berrogei urteotan euskal hiztunei egin zaizkien grabazioak jaso ditu Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, Euskal Kultur Erakundearen laguntzaz. Fonotekaren iturri gisa, hainbat ikerlarik egindako lana hartu da, hala nola Jose Mari Satrustegi euskaltzain osoak eta Iñaki Camino, Iñaki Gaminde eta Patziku Perurena euskaltzain urgazleek eginikoak. Aurkezpenean, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria izan da.

Hizkuntza Minorizatuen Europar Batzordea

Europako Kontseiluaren adituen batzordea Euskal Herrian izan da, Espainiak berretsitako Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren betetze maila aztertzeko. Maiatzaren 26an Euskaltzaindiaren egoitzan izan da eta lau bilera egin ditu arlo desberdinetako ordezkariekin. Xabier Kintana idazkariak eta Jose Luis Lizundia diruzainak hartu dituzte batzordekideak eta hizkuntzaren normalizazioaz, euskararen legeaz, hizkuntzaren estandarizazioaz eta antzeko gaiak azalpenak eman dizkiete.



Egoitzan, Hizkuntza Minorizatuen Europar Batzordea, 2004-V-26an. Bost batzordekideren erdian, **ezkerretik eskuinera**: Xabier Kintana eta Jose Luis Lizundia.

Euskalkiak eta komunikabideak izeneko Jardunaldiak Uharten

Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko *hitzarmena* betetz, euskara eta euskalkien egoera aztertzeko jardunaldiak antolatu dituzte bi erakunde horiek. Jardunaldiak ekainaren 16an eta 17an egin dira, Uharten, Zubiarte Euskaltegi Publikoan, "Euskalkiak eta komunikabideak" izenburupean.



Uharten, Zubiarte Euskaltegian, "Euskalkiak eta Komunikabideak" gaiari buruzko Jardunaldia, 2004-VI-16an.

Ezkerretik eskuinera:
Pedro Pegenaute eta Jean Haritschelhar.

Hedabide lokalekin lotura estua duten pertsoneri, bereziki, zuzenduak izan dira Jardunaldiok eta helburu bikoitza izan dute: alde batetik, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak komunikabideetan erabiltzen direnerako, Euskaltzaindiak finkatu dituen irizpideen berri

ematea; eta, bestetik, zenbait esperientziaren berri ematea, herri eta eskualdeetako hedabideen arteko informazioa trukatzuz.

Aramaioko III. Uda ikastaroan

Arabako Foru Aldundiaren Kultura Sailak eta Aramaioko Udalak, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin, III. Uda ikastaroa antolatu dute izen honekin: “Euskal Herria XVI. mendean: gizarte eta kultura garai erabakigarrian”. Lau egunetan garatu den ikastaro honetan 15 ponentzia irakurri dira eta saio bakoitzaren bukaeran zegokion mahai-ingurua egin da.

Henrike Knörr euskaltzainburuordea izan da uztailaren 6tik 9ra egin den ikastaro honen zuzendaria. Horrez gainera, hitzaldi bat eman du: “Joannes Leizarraga protestantearen lana”.

Gabriel Arestiren eguna

Uztailaren 24an, *Gabriel Arestiren* eguna ospatu da Ean (Bizkaia), “Herrijeri emon arnasa” kultura taldeak eta Eako Udalak antolatuta. Ekitaldiaren barruan, Eako seme kutun izendatzeaz gain, Arestiren omenezko oroitarria jarri dute. Ekitaldian Jean Haritschelhar, Xabier Kintana eta Txomin Peillen euskaltzainak eta Juanjo Zearreta eta Jon Kortazar euskaltzain urgazleak izan dira.

Raimundo Olabideri omenaldia

Gasteizko *Olabide Ikastolaren* 40. urteurrenaren barruan antolatu diren ekitaldien artean, Ikastolak berak eta Euskaltzaindiak lehen euskaltzain arabarra izan zenari eskaini diote omenezko ekitaldia, irailaren 3an, Gasteizko Udalaren *Goiuri Jauregian*. Beste hizlarien artean, Henrike Knörr buruordeak Raimundo Olabideren bizitzaz eta lanez hitzaldia egin du. Ondoren, haren jaiotetxean oroitarri bat jarri da.

Nafarroako Parlamentuaren Ponentzia

Nafarroan egiten den hizkuntza politika aztertzeko, *Ponentzia* sortu du Parlamentuak eta Euskaltzaindia gonbidatu du bere iritzia eman dezan. Irailaren 8an Andres Iñigo joan da Akademiaren izenean eta hitzaldia irakurri du. Txostenaren puntu nagusiak hauek dira:

- Euskaltzaindiaren izaera eta helburuak, *Jagon* Sailari bereziki dagozkionak.
- Euskaltzaindiak, euskararen jagole den aldetik, Nafarroako euskararen egoeraren aitzinean azkeneko 25 urte hauetan izan duen arreta berezia eta, ondorioz, egin dituen adierazpenak.
- Aitzina begiratuz, Euskaltzaindiaren ustez Nafarroako Foru Parlamentuak hartu beharko lituzkeen neurriak, nafar guztien hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko eta Foru Komunitatean euskara gizartearen alor guztietan komunikazio tresna bilakatu ahal izateko.

FORUM Barcelona-04

Irailaren 16, 17 eta 18an, Sinposioa egin da Bartzelonan, Europar Batasuneko kultura-politikaz. Hilaren 16an, Euskaltzaindiak bi ordezkari izan ditu Sinposio horretan: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua -ohorezko patronatuko kidea- eta Jose Luis Lizundia, diruzaina. Irailaren 16an, Jean Haritschelharrek “Euskara eta Euskaltzaindia Europako hizkuntzen mosaikoan” hitzaldia egin du. Honen ostean izan den elkarrizketan, bestalde, Jose Luis Lizundia ere mintzatu da.



Bartzelonan, "FORUM Barcelona-04"an, 2004-IX-16an.

Ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Pascual, Salvador Giner, Joserra Garzia, Henrique Monteagudo eta Jean Haritschelhar.

Euskaltzaindia LIBERen

Irailaren 28tik urriaren 2ra egin da Bartzelonan Liburuaren Nazioarteko 22. Azoka. Euskaltzaindiak bere argitalpenak aurkeztu ditu *Institut d'Estudis Catalans* eta *Consello da Cultura Galega*-rekin batera. Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Rikardo Badiola argitalpen eragilea eta Jon Artza argitalpenen banaketa arduraduna izan dira bertan.

Quijote-ren laugarren mendeurena

Carmen Calvo Espainiako Gobernuako Kultura Ministroak *Quijote* argitaratu zeneko IV. Mendeureneko Batzordeko kidea izatea eskaini dio Euskaltzainburuari eta honek onartu.

Estatuko Hizkuntzen erabileraz

Kataluniako Generalitateko *Conseller en cap*-ek deituta, Estatuko hizkuntzen erabileraren arautzearen gaineko jardunaldian parte hartu du Euskaltzaindiak, urriaren 8an Institut d'Estudis Catalans-en egoitzan, Estatuko beste Hizkuntza Akademiekin batera. Jardunaldiaren xedea hauxe izan da: Espainiako Estatuko hizkuntzetarako lege-arautze berria aztertzea, helburua beti ere hizkuntza guztien koofizialtasun parekatua ziurtatzea delarik.

Euskaltzaindiaren partaidetzari dagokionez, bi ordezkari joan dira: Andres Urrutia eta Jose Luis Lizundia euskaltzainak. Bioi egokitu zaie, beraz, Estatuko Akademietako kideekin batera, hizkuntza erakundeen ikuspuntua eta zeregina argitzea, bai eta dagozkien eginkizunak proposatzea ere. Lantalde bi izan dira: lehena, esan bezala, Hizkuntza Akademiak osa-

tutakoa; bigarrenean, aldiz, Estatu zein Autonomia Administrazioetako ordezkariak aritu dira, gai bera eztabaidatuz. Azkenean biok batu dira, ondorio bateratua plazaratzeko.

Deustuko Unibertsitatean

Urriaren 5ean, Jean Haritschelharrek hitzaldi bat eman du Deustuko Unibertsitatean “euskararen geroaz”. Bizkaiko euskaltzain guztiak gonbidatuak izan dira ekintza honetara.

Ermuako Udaletxean

Urriaren 28an, Ermuako Udaletxean *Berbatruk*, *Ermuko merkataritzan euskararen presentzia areagotzeko hitzarmena* aurkeztu da, *Euskal birusa* elkarteak bultzatuta. Ekitaldian, Jose Luis Lizundia izan da Euskaltzaindiaren izenean, hitzaldia irakurriz.

Arturo Campionen 150. urteurrena

Azaroaren 16an, *Zaldiko Maldiko* elkartearen egoitzan, Arturo Campionen 150. urteurrena dela eta, nafar euskaltzainaren izena daraman euskaltegiak antolatutako mahai-inguruan parte hartu du Andres Iñigo Nafarroako ordezkariak.

ALTEko Biltzarkideak Euskaltzaindian

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskatuta, azaroaren 10ean, egoitzan hartu ditu Euskaltzaindiak 67 biltzarkide. Andres Urrutiak ongi etorria eman ondoren, Akademiaren nondik norakoaren azalpenak eman dizkie. ALTE Elkarteak Europako hizkuntzen azterketak egiten dituzten erakunde ugari biltzen ditu eta beronen zeregina goi mailako irizpideak zaintzea da, hizkuntza azterketen munduan arau bateratuak garatze aldera. Une honetan, Europako 24 hizkuntza daude ordezkaturik ALTEn: bulgariara, katalana, daniera, nederlandera, ingelesa, estoniera, finlandiera, frantsesa, alemana, greziera, hungariera, italiara, leto- niera, lituaniera, luxenburgera, norvegiara, poloniera, portugesa, errusiera, esloveniera, gaztelania, suediera, galesa eta euskara.



Egoitzan, ALTEko biltzarkideak, 2004-XI-24an, Euskaltzaindiko batzar-aretoan.

Geronimo Uztaritz Historia Institutua eta IPES

Azaroaren 26an, Iruñean, Jean-Louis Davant euskaltzainak "Euskara eta euskal nor-tasuna Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan" izeneko hitzaldia eman du. Geronimo Uztaritz Historia Institutuak eta IPES Elkarteak antolatu dute berbaldia.

Real Academia Española-ren III. Nazioarteko Biltzarra

Azaroaren 17tik 20ra, Real Academia Española-k bere III. Nazioarteko Biltzarra egin du Argentinan. Euskaltzaindiaren izenean, Henrike Knörr izan da eta, biltzar horren barruan eginiko "Gaztelania eta Espainiako beste hizkuntzak" izeneko mahai inguruan parte hartu du eta "El vascuence o el euskera: perspectiva histórica y panorama actual" izeneko txostena irakurri.

XVIII. mendeko Euskal Herriaren inguruko hitzaldiak

Azaroaren 18 eta 19an, Iker Zentroak antolaturik, Baionako *Bonnat* Museoan, Euskal Herriko XVIII. mendeari buruzko hitzaldiak eman dira. Azaroaren 18ko hizlarien artean, Gidor Bilbao, Aurelia Arkotxa, Xabier Altzibar eta Ana Toledo euskaltzain urgazleak izan dira eta, biharamunean, Jean Haritschelhar eta Beñat Oihartzabal euskaltzain osoak eta Patri Urkizu eta Jon Casenave euskaltzain urgazleak.

HERRIAREN 60. urteurrena

Abenduaren 5ean, *Herria* astekariaren 60. urteurrena ospatu da Uztaritzen, astekariaren sortzaile eta urte luzez zuzendari izan zen Piarres Lafitte herri horretan ehortzita baitago. Urteurren hori dela eta, burutu diren ekitaldi desberdinetan euskaltzain hauek parte hartu dute: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Beñat Oihartzabal, *Iker* sailburua; Piarres Xarritton, Iparraldeko ordezkaria; Emile Larre, Jean-Louis Davant eta Patxi Goenaga euskaltzainak eta Jean-Baptiste Dirassar ohorezko euskaltzaina. Uztaritzeko hilerrian, Piarres Lafitteren hilobian, lore-sorta jarri dute Emile Larrek eta Jean-Baptiste Dirassarrek.

Hego Ameriketako hizkuntzen batasuna

Abenduaren 23an, egoitzan, bi orduz bildu da Xabier Kintana idazkaria Hector Menchero jaunarekin. Hector Menchero, UNESCOren bekadun bezala lanean ari da Quiton, gaztelania ez beste hizkuntzen batasunean laguntzen. Euskararen batasuna nola egi-ten ari den hurbiletik jakin nahi izan du, eta horregatik etorri da Euskaltzaindira. Hori dela eta, datorren urtean egingo den biltzarrerako gomita jaso du Euskaltzaindiak, Ekuadorren dauden hamabost hizkuntzatarako ordezkarien izenean, hor euskararen batasunaren lekukotasunak bere lekua izan dezan.

1.4. EUSKALTZAINDIA ERAKUNDEETAN

Euskaltzaindiak erakunde batzuen hainbat ataletan parte hartzen du. Ondoren, erakunde eta atal horiek zeintzuk diren, batetik, eta ordezkariak nortzuk diren, bestetik, zehazten da:

Erakundea	Ordezkaria
Hezkuntza Ministerioaren Biblioteka Nazionala	Euskaltzainburua
Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordea	Euskaltzainburua
Nafarroako Euskara Kontseilua	Euskaltzainburua eta Nafarroako ordezkaria
EiTBko Administrazio Kontseilua	Jose Luis Lizundia
Eusko Jaurlaritzako Euskal Gizataldeekiko Harremanak	Henrike Knörr
Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Kontseilua	Juan San Martin (†)
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko EIMA programa	Joxe Ramon Zubimendi
Eusko Jaurlaritzako Toponimia Batzordea	Jose Luis Lizundia eta Mikel Gorrotxategi
Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordea	Andres Urrutia
Fundación Germán Sánchez	Jose Antonio Arana
HABE	Andres Urrutia
Gasteizko Plan Estrategikoaren Batzordea	Arabako ordezkaria
Kulturako Ministerioako Kixoteren IV. Mendeurreneko Batzordea	Euskaltzainburua
Europar Batasuneko Kultura-politikari buruzko Sinposioa	Euskaltzainburua

1.5. SARIAK ETA OMENALDIAK

Udako Euskal Unibertsitateak Jose Mari Jimeno Jurio omendu

Martxoaren 5 eta 6an, Iruñean, Historialari Euskaldunen III. Topaketen barruan, Udako Euskal Unibertsitateko Historia Sailak Jose Mari Jimeno Jurio euskaltzain ohorezko zena omendu du. “Jimeno Jurio berrikusten” izenburupean egin den omenaldi honetako hizlarien artean, hauek hartu dute parte: Andres Iñigo euskaltzain osoak, Patxi Salaberri eta Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi” euskaltzain urgazleek eta Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Bibliotekako zuzendariak.

Jose Mari Satrustegiren omenez, Arruazun

Martxoaren 28an, Arruazuko Udalak eta Vianako Printzea Erakundeak, Jose Mari Satrustegi omendu dute, haren heriotzaren urteurrenean. Euskaltzaindiaren aldetik, hauek izan dira: Jean Haritschelhar, Andres Iñigo, Henrike Knörr, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Pierre Charritton, Andres Urrutia, Pello Salaburu eta Patxi Zabaleta euskaltzainak; Juanjo Zearreta euskaltzain urgazlea; Gema Insausti Iruñeko ordezkari zako arduraduna, Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Bibliotekako zuzendaria eta Josune Olabarria Bibliotekako artxibo arduraduna.

Deustuko Unibertsitateak, Patxi Altuna omendu

Martxoaren 25ean, “Euskaldun berriak euskal gizartean” izenburupean, Deustuko Unibertsitateak buruturiko jardunaldien barruan, Patxi Altuna euskaltzaina omendu dute, Gotzon Garate eta Dionisio Aranzadi Jesusen Lagundiko kideekin batera, “Deustuko Unibertsitatean euskararen alde egin duten lanagatik”. Omenaldian, mahai-ingurua ere egin da, honako partaideekin: Pello Salaburu, Iñaki Ugarteburu eta Jesus Uranga. Hau izan da hiruek jorratu duten gaia: “Euskaldun berriak eta euskara”.

Idazleen Biltzarrak Jean-Louis Davant omendu Saran

Jean-Louis Davant idazlea eta euskaltzaina –Philippe Oyhambururekin batera– omendu dute apirilaren 12an, Saran egin den Idazleen Biltzarraren XXI. Edizioan, “beren bizian euskararen eta euskal kulturaren alde egin duten lanagatik”.

Andolin Eguzkitzaren omenezko ekitaldiak

Apirilaren 22an, Andolin Eguzkitza zenaren omenezko ekitaldia egin da Santurtziko *Kresala* aretoan. Xabier Kintanak “Andolin gogoan” hitzaldia eman du eta haren ondoren Eguzkitzaren olerki batzuk irakurri ditu Analupe Fernandezek, Juan Perez Menaren musikaren laguntzarekin. Bestalde, Santurtziko Udalak Andolin Eguzkitzaren *Lore-koroa neure herriari* liburua oparitu du; liburu horretako hitzaurrea Xabier Kintanak idatzia da.

Maiatzaren 6an, omenezko Literatur Jazza ekitaldi berezia egin dute Bilboko *Kalderapeko* Kulturgunean, AEK-k antolaturik. Emanaldian zehar, Andolin Eguzkitzaren poemak irakurri dira.

Ekainaren 2an, Iruñeko Udalaren Kultur Aretoan, euskaltzain zenduari omenaldia egin diote Udalak eta Nafar Ateneoak, “Andolin Eguzkitza gogoan” izenburupean. Bertan, Tere Irastorza Euskal Idazleen Elkarteko buruak eta Maite Gonzalez Esnal idazleak hitz egin dute, bai eta Josetxo Azkona idazleak Eguzkitzaren poema batzuk irakurri ere.

Ekainaren 3an, Bilboko *Liburu Azokak* ere omendu du. haren familia bertan zela, Alain Urrutia Bilboko Errezitazio Lehiaketaren irabazleak Eguzkitzaren *Gaur arratsean* poema irakurri du eta ondoren, Iñaki Azkuna Bilboko alkateak Ramon Zumalabek eginiko oroigarri bat eman dio Santurtziko euskaltzain zenaren sendiari. Oroitarriak honela dio: *Andolin Eguzkitzari. Bilboko Liburu Azoka, 2004. Heriotza bidea eta gero, darrai bere lerroan.*

Urrezko Idazluma Jose Antonio Arana Martijarentzat

Ekainaren 8an, Bilboko Liburu Azokak *Urrezko Idazluma* eman dio Jose Antonio Arana Martija euskaltzainari. Kristina Arana alabak jaso du saria. Ekitaldian, Henrike Knörr euskaltzaina, Arana Martijari eta beronen obrari buruz mintzatu da.

2004ko Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa saria, Juan San Martini

Juan San Martinek irabazi du Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien 2004ko saria, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak ematen dutena. Irailaren 8an eman diote saria San Martini.

2004ko Manuel Lekuona Saria, Jean Haritschelharrentzat

Jean Haritschelhar euskaltzainburuari 2004ko *Manuel Lekuona Saria* eman dio Eusko Ikaskuntzak, *bizitzan zehar euskal kuturaren alde egin duen lanagatik*. Remigio Mendiburuk egindako brontzezko irudia emango diote, 2005ean egingo den ekitaldian.

Euskal Herriko Unibertsitateak Juan San Martin omendu

Abuztuaren 24an, Zumaiaiko *Zuloaga* Museoan, Euskal Herriko Unibertsitateak Juan San Martin omendu du, Uda Ikastaroen barruan. Hizlarien artean, Jean Haritschelhar izan da.

Mañariko Udalak Jose Luis Lizundia omendu

Urriaren 21ean, Santa Urtsula egunean, Jose Luis Lizundiari omenaldia egin dio Mañariko Udalak, herri horretako idazkaria izana baita. Herriko plazan dagoen eta Vicente Larrea eskultoreak egindako Kirikiñoren eskulturaren erreprodukzioa eman dio Udalak.

Baionako Euskal Museoak Jean Haritschelhar omendu

Abenduaren 4an, Baionako Euskal Museoaren 80. urteurrena ospatu da. Ospakizun horrekin bat eginez, Museoako zuzendaria izandako Jean Haritschelhar omendu dute. Opari gisa, Michel Iturria kazetariak eginiko marrazki bat eman diote Haritschelharri, non euskaltzaina bera agertzen den, pilotari gisa jantzita.

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren Argizaiola Txillardegiri

Abenduaren 4an, Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen 39. Azokaren *Argizaiola* Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”ri eman diote. Haren bizitza osoan zehar egindako lana omendu nahi izan du Gerediaga Elkartek.

Federico Barrenengoaren omenezko ekitaldia, Amurrion

Abenduaren 11n, Federico Barrenengoa euskaltzain ohorezkoa omendu dute Amurrion. “Urteko amurriarra” izendatzeaz gain, Pablo Isasi Amurrioko alkateak herriko makila eman dio Barrenengoari.

Los Mejores de Cambio 2003ko saria jaso, Madrilen

Cambio 16 aldizkariak, 2003ko azaroan egindako bileran, urtero ematen duen *Los Mejores de Cambio* izeneko saria, Euskaltzaindiari ematea erabaki zuen, Kulturari dagokion arloan. Sari-banaketa Madrilen izan da, aurtengo otsailaren 16an, eta Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Henrike Knörr buruordea izan dira bertan Akademiaren izenean.

Sarigaiak, Euskaltzaindiaren proposamenez

Aldiro-aldiri, erakundeek aukera ematen diote Euskaltzaindiari sarietarako hautagaiak aurkezteko. Hona hemen, 2004an, Akademiak egin dituen proposamenak:

- Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Kutzaren “Urteko Euskal Herritar Unibertsala” izeneko sarirako, Renoko *Center for Basque Studies* proposatu du Euskaltzaindiak.
- Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutxa-ren “Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientziak” sarirako, Juan San Martin euskaltzaina proposatu du Akademiak.

1.6. HERIOTZAK

Pedro de Yrizar ohorezko euskaltzaina

Urtarrilaren 10ean hil da Pedro de Yrizar ohorezko euskaltzaina, Madrilen. Azkoitian sortua zen, 1910eko abuztuaren 10ean. Hileta urtarrilaren 11n izan zen, Azkoitian.

Euskalki guztietako aditz laguntzailearen *morfologia* aztertu zuen –bizkaiera, gipuzkera, goi-nafarrera, erronkaria, lapurtera, behe-nafarrera, zuberera– eta, Euskaltzaindiaren eskutik, *Morfología del verbo auxiliar* sortaren 14 liburu argitaratu.

Euskaltzaindiak 1947ko martxoaren 28an izendatu zuen euskaltzain urgazle eta euskaltzain ohorezko, berriz, 1987ko ekainaren 18an.

Andolin Eguzkitza euskaltzain osoa

Andolin Eguzkitza euskaltzain osoa martxoaren 24an hil da.

Andolin Eguzkitza Bilbao Santurtzin jaio zen, 1953ko abenduaren 6an. Deustuko Unibertsitatean Filologia Erromanikoa ikasi ondoren, Salamancan izan zen, Koldo Mitxelena zenaren gidaritzapean. Alemanian eta Estatu Batuetan sendotu zuen prestakuntza. Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Orokor eta Tipologiako katedraduna zen, Gasteizko campusean.

2001eko martxoaren 31n, Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen, Luis Villasanteren hutsartea betetzeko. Akademiaren baitan, Dialektologia batzordeko burua zen Andolin Eguzkitza, Gramatika batzordeko kidea, Exonomastika azpibatzerdearen arduraduna eta Azkue Biblioteka batzordekidea.

Larry Trask euskaltzain ohorezkoa

Martxoaren 27an hil da Larry Trask euskaltzain ohorezkoa. New Yorkeko Estatuan sortua zen, 1944. urtean. Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 2002ko azaroaren 29an. Euskarari buruz osatu dituen lanetan, euskararen historia eta aurre-historia jorratu ditu gehien bat, baita joskerari buruzko zenbait puntu ere. Haren ekarpenik handiena, hala ere, euskarari buruzko informazio zehatza mundu zabalean barreiatzea izan da.

Manex Goienetxe euskaltzain urgazlea

Maiatzaren 2an, Manex Goienetxe hil egin da. Ezterenzubin (Nafarroa Beherea) sortu zen, 1942ko irailaren 22an. Historia eta irakasle ikasketak egin zituen. Irakaslea, historiagilea, politika gertu-gertutik jarraitu zuen gizona. Euskal Herriko historiaren ikertzaile sendoa izan da; *Histoire générale du Pays Basque / Euskal Herriko Historia* lana dugu horren emaitza nagusia, oraindik idazten ari zena. UEUko lehen idazkari nagusia izan zen eta bertako zuzendaria. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1975eko ekainaren 27an.

Augustin Zubikarai ohorezko euskaltzaina

Uztailaren 12an, Augustin Zubikarai idazle eta euskaltzain ohorezkoa zendu da. Augustin Zubikarai Bedialauneta Ondarroan sortu zen, 1914ko azaroaren 3an. Euskal kaze-

taritzan lan handia egin zuen: besteak beste, *Zeruko Argia*, *Karmel*, *Argia*, *Ega*, *Deia* eta *Diario Vasco* aldizkari eta egunkarietan idatzi zuen. *Ondarroa* aldizkariaren zuzendaria izan zen, bai eta *Euskerazaintza*, *Arranondo* eta *Boga-Boga* aldizkariena ere. Euskal idazlerik oparoenetakoa izan da Augustin Zubikarai. Antzerkia, poesia, narratiba eta kazetaritza arloak landu ditu, bai eta itzultzaile lanak egin ere. Berrogei bat antzerki-lan eta beste horrenbeste eleberrri eta ipuin idatzi zituen.

Euskaltzaindiak 1961eko abuztuaren 25ean izendatu zuen euskaltzain urgazle eta 1993ko ekainaren 25ean, berriz, euskaltzain ohorezko.

Martin Ugalde ohorezko euskaltzaina

Martin Ugalde idazle, kazetari eta euskaltzain ohorezkoa urriaren 4an hil da. Ugalde *Euskaldunon Egunkaria*-ko Ohorezko Lehendakaria zen.

Martin Ugalde Andoainen sortua zen, 1921eko azaroaren 11n. Euskaltzaindiak 1973an euskaltzain urgazle izendatu zuen eta, 1993an, euskaltzain ohorezko. Euskaltzaindiak 1977an argitaratu zuen *Euskararen liburu zuria / El libro blanco del euskara* argitalpenaren zuzendaria izan zen.



Egoitzan, Martin Ugalderen hilberri-txostena irakurtzen, 2004-XII-17an.

Ezkerretik eskuinera: Joan Mari Torrealdai, Andres Urrutia, Henrike Knörr, Jean Haritschelhar, Xabier Kintana eta Jose Luis Lizundia.

Jose Mari Larrarte ohorezko euskaltzaina

Jose Mari Larrarte euskaltzain ohorezkoa hil egin zaigu, urriaren 23an, Bilbon. Jose Maria Larrarte Garmendia Bidanian jaioa zen, 1926ko urtarrilaren 4an. Euskaltzaindiak, euskaltzain urgazle izendatu zuen 1987ko uztailaren 24an eta, 2002ko abenduan, aldiz, euskaltzain ohorezko. Gramatika eta Azkue Biblioteka batzordeetako kidea zen.

1.7. HILBERRI-TXOSTENAK

Urtarrilaren 30ean, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak. Bertan, omenezko hilberri-txosten hauek irakurri dira:

Jose Mari Satrustegi

Euskaltzain osoa (Arruazu, 1930-2003). Omenezko txostena Andres Iñigok egin du.

Rudolf de Rijk

Euskaltzain urgazlea (Amsterdam, 1937-2003). Omenezko txostena Pello Salaburuk egin du.

Maiatzaren 28an, Bilbon, egoitzan egin den ageriko bilkuran, hilberri-txosten hauek irakurri dira:

Pedro de Yrizar

Euskaltzain ohorezkoa (Azkoitia 1910 - Madril 2004). Omenezko txostena Henrike Knörrek egin du.

Andolin Eguzkitza

Euskaltzain osoa (Santurtzi 1953 - Bilbo 2004). Omenezko txostena Xabier Kintanak egin du.



Egoitzan, Andolin Eguzkitzaren hilberri-txostena irakurtzen, 2004-XII-17an.

Ezkerretik eskuinera: Xabier Kintana eta Jean Haritschelhar.

Robert Lawrence "Larry" Trask

Euskaltzain ohorezkoa (New York 1944 - Sussex 2004). Omenezko txostena Jose Ignacio Hualde Illinois-eko Unibertsitateko irakasleak egin du.

* * *

Ekainaren 24an, Larresoroko Pelelene liburutegian:

Manex Goienetxe

Euskaltzain urgazlea (Ezterenzubi 1942 - Biarno, 2004). Omenezko txostena Jean-Louis Davantek egin du, Maurice Harrieten mendeurreneko ekitaldiaren barnean.

* * *

Abenduaren 17an, egoitzan egin den ageriko bilkuran, hilberri-txosten hauek irakurri dira:

Augustin Zubikarai

Euskaltzain ohorezkoa. (Ondarroa 1914-2004). Omenezko txostena Andres Urrutiak egin du.



Egoitzan, Augustin Zubikarairen hilberri-txostena irakurtzen, 2004-XII-17an.

Ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia, Henrike Knörr, Jean Haritschelhar, Xabier Kintana eta Jose Luis Lizundia.

Martin Ugalde

Euskaltzain ohorezkoa. (Andoain, 1921-Hondarribia, 2004). Omenezko txostena Joan Mari Torrealdaik egin du.

I. 8. IZENDAPENAK ETA ORDEZKAPENAK

Euskal Herritar Unibertsala

Euskal Herritar Unibertsala sariko epaimahaian Henrike Knörrek ordezkatu du Euskaltzaindia.

Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877

Otsailaren 18an, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan, Andres Urrutia euskaltzainak prestatutako *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa* liburuaren aurkezpena egin da eta Jose Luis Lizundia joan da Euskaltzaindiaren izenean.

Beste ordezkapen batzuk:

- Otsailaren 2an, Bilboko *Botikazar* Ibarreko zabalgunean egin den "Tximinotik Gizakira giza eboluzioaren bost urrats"en erakusketara (Bilboko Udalak eta La Caixa Fundazioak antolatua), Idazkaria eta Kudeatzailea joan dira.
- Otsailaren 2an, Arriaga Antzokian, *Deia* egunkariak eman dituen kirol sarien banatze-ekitaldira, Kudeatzailea joan da.
- Otsailaren 3an, Bilboko Artxandako Ostalaritza Eskolan egin den "Euskadi Gastronomia" sarien banaketara, Xabier Kintana, idazkaria joan da.
- Otsailaren 3an, Gasteizen, Vital Kutxa Fundazioaren Aretoan egin den *Liburuen etxea. Antso jakituna Fundazioaren 40. urteurrena* kultura erakusketara Henrike Knörr joan da.
- Otsailaren 19an, Gasteizko *Zulueta* Jauregian egin den *Antso Jakitunaren Fundazioaren 40. urteurrenaren ospakizunean*, Henrike Knörr buruordea izan da Akademiaren ordezkari bezala.
- Otsailaren 19an, Gasteizko *Principal* antzokian ospatu da *IV. urteurrena. Fernando Buesa Blancoren Oroitzapenez* ekitaldira ere Henrike Knörr buruordea joan da.
- Martxoaren 7an, Real Academia Española-n Carlos Castilla del Pino jaunak sarre-hitzadia egin du, eta hor Henrike Knörr buruordea izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Martxoaren 18an, Euskalerriko Adiskideen Elkarateak gonbidatuta, Emilio Múgicaren hitzaldira *Zalduntxoak, 98ko euskotarrak eta euskara* Andres Urrutia Jagon sailburua joan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Martxoaren 25ean, *Gabriel Aresti* ipuin lehiaketako sarien banaketa-ekitaldian izan dira Xabier Kintana, idazkaria eta Jose Luis Lizundia, diruzaina, Bilboko Udaletxean.
- Martxoaren 25ean, *Guggenheim* Museoan ospatu den Euskal Eskola Publikoaren XIII. Festara Xabier Kintana idazkaria joan da.

- Martxoaren 28an, Bilboko Udalak, Bilboko *Ertzilla* kalean, Jose Antonio Agirre Lekube lehenengo lehendakariaren irudia jarri du, haren jaiotzaren mendeurrena dela eta. Pello Telleria, idazkariordea izan da Erakundearen izenean.
- Apirilaren 1ean, Fernando Buesa Blanco Fundazioak, Donostian, Amarako Kultur Etxean, *La normalización del euskera / Euskararen erabileraren normalkuntza* liburua aurkeztu du. Ekitaldi horretara Henrike Knörr buruordea joan da.
- Apirilaren 22an, Arrasateko *Amaia* Antzokian, Gipuzkoako Batzar Nagusiek beren 25. Urteurrena ospatu dute. Ekitaldi horretara Jose Luis Lizundia joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Apirilaren 24an, *Laminiturri* Kultur Elkarteak II. Naiara Saria eman du (Honorio Cadarso Cordón jaunari), Logroñoko *Ateneo Riojano*-ko Aretoan. Henrike Knörr joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Apirilaren 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 25. urteurrena ospatu da Gipuzkoako Foru Jauregian. Jean Haritschelhar joan da.
- Apirilaren 28an, Gernikan, Bizkaiko Batzar Nagusiek 25. Urteurrena ospatu dute. Ekitaldi horretara Jose Luis Lizundia joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 6an, Iruñean, Euskara Kultur Elkargoak antolatutako Sabino Arana Kultur Elkargoaren *Habla en cristiano* erakusketaren inaugurazio ekitaldira, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria joan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 7an, Arabako Batzar Nagusiek beren 25. urteurrena ospatu dute. Ekitaldi horretara Henrike Knörr joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 8an, Iruñean, *Vianako Printzea Erakundea* – Kultura eta Turismo Departamenduan, Eusko Ikaskuntzak 2003ko *Manuel Lekuona* Saria Jesus Atxa Agirrerri eman dio. Euskaltzaindiaren izenean Xabier Kintana eta Andres Iñigo joan dira.
- Maiatzaren 8an, Zaragozan, *Ligallo de Fablans del Aragónés* erakundeak egin duen biltzarrera, Pedro Sancristoval euskaltzain urgazlea joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 9an, Senperen egin den *Herri Urrats 2004* ekitaldian Jean Haritschelhar, euskaltzainburua izan da.
- Maiatzaren 30ean, Leioan eta Sopelan egin den *Ibilaldia 04*-ra, Xabier Kintana joan da, Leioako *Betiko* Ikastolan egin den hasiera-ekitaldira.
- Ekainaren 6an, Bilbon, Euskal Eskola Publikoaren XIII. jaia izan da. Xabier Kintana joan da Erakundearen ordezkari moduan.
- Ekainaren 10ean, Donostiako *Miramar* Jauregian, Eskubide Historikoei buruzko jardunaldia antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Jose Luis Lizundia, diruzaina izan da Akademiaren izenean.
- Ekainaren 15ean, Bilboko Udaletxean, Bilbo sortu zeneko 704. urteurrena ospatzeko egin den ekitaldian, Xabier Kintana eta Andres Urrutia izan dira.
- Ekainaren 16an, Bilbon, San Nikolas Plazako BBVAren egoitzan, Mexico-ko *Soumaya* Museoko altxorren erakusketaren inaugurazioa egin da. Jose Luis Lizundia joan da Akademiaren izenean.
- Ekainaren 20an, Álvaro Pombo jaunak sarrera-hitzaldia egin du Real Academia Española-n. Ekitaldi horretan Henrike Knörr buruordea izan da Euskaltzaindiaren ordezkaria.

- Ekainaren 26an, Azkoitiko Udaletxean egin du bere urteko batzar orokorra Euskalerriko Adiskideen Elkarteak. Henrike Knörr izan da Erakundearen izenean.
- Ekainaren 27an, Iruñeko *Baluarte* Jauregian, *Nafarroa Oinez 2004*ko “Lizarragurea” izeneko ekitaldian Andres Iñigo izan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 26an eta 27an, Eskoriatzako Udalak, bertako seme izan zen Aita Emiliano Barandiaran euskaltzain urgazlearen mendeurrenoko ospakizunak antolatu ditu. Henrike Knörr joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Uztailaren 1ean, *Laminiturri* Kultura Elkarteak Durangon aurkeztu duen *El camino del Vasconce / Euskararen bidea (Ramal Bizkaino)*-ren aurkezpenean Jose Luis Lizundia izan da.
- Uztailaren 11n, Iruñeko *Larraona* Ikastetxean egin den Udako Euskal Unibertsitatearen 32. Ikastaldiaren sarrera-ekitaldian Andres Iñigo izan da.
- Irailaren 10ean, OLBE / ABAOk, *Guggenheim* Museoan aurkeztu du 2004-2005eko Opera Denboraldia. Ekitaldi horretan, Xabier Kintana idazkariak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Irailaren 12an, Amurrioko *Bañuera* Udal Kiroldegian *Antso Handia* pastoralara antzeztu da, eta Henrike Knörr buruordea joan da Akademiaren izenean.
- Irailaren 17an, Andres Iñigok ordezkatu du Euskaltzaindia, Lizarrako Ikastolak antolaturik, hiri horretako polikiroldegian izan den *Lizarragurea* izeneko kultura jaialdian.
- Irailaren 27an, Bilboko *Sheraton* Hotelean, *Aurten Bai Fundazioak* egin duen HATOR webguneko atal berriaren aurkezpenean Adolfo Arejita izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Irailaren 24an, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kurtso hasierako ekitaldian, Andres Iñigo izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Irailaren 28an, Bilboko *Euskalduna* Jauregian, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egin duen “Kulturaren euskal Plana”ren aurkezpena Xabier Kintana eta Andres Urrutia joan dira.
- Irailaren 29an, Euskal Herriko Unibertsitateak Gasteizen egin duen 2004-2005 Ikasturtearen irekiera nagusian, Henrike Knörrek ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Irailaren 29an, Bilboko *Zubiarte* eraikuntzan, EiTBk 2004-2005 denboraldia aurkeztu du. Jose Luis Lizundia diruzaina izan da han Akademiaren izenean.
- Urriaren 4an, Orion egin den *Kilometroak 04* ekitaldira Ana Toledo joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 7an, *Guggenheim* Museoan egin den “Oteiza mitoa eta modernotasuna” erakusketaren inauguraziora Xabier Kintana joan da.
- Urriaren 17an, Lizarrako Ikastolak antolatu duen *Nafarroa Oinez*-eko ekitaldieta- ra Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria joan da.
- Urriaren 25ean, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Biltzar Nagusiek, Euskal Autonomia Estatutuaren 25. urteurrena ospatu dute, *Artium* Museoan. Henrike Knörr joan da Akademiaren izenean.
- Urriaren 28an, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria *www.zerberri.com* aldizkari digitalaren aurkezpenean izan da, Uharteko *Zubiarte* euskaltegian.

- Azaroaren 12an, Andres Iñigok Euskaltzaindia ordezkatu du *Euskara Kultur Elkargoak* antolatu dituen “Euskara. Nafarroa. Etorkizuna” izeneko jardunaldietan.
- Azaroaren 17an, Deustuko Unibertsitateak *Kode Zibila*-ren eta *Lege Zibila*-ren aurkezpena egin du. Andres Urrutiak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Azaroaren 23an, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailean eman diren 2004ko *Euskadi Literatura Sari*en banatze-ekitaldian Andres Urrutia izan da.
- Abenduaren 10ean, Andres Iñigo izan da Euskaltzaindiaren izenean, Iruñeko *Baluarte*-n, **Klasikoak** bildumaren aurkezpenean.
- Abenduaren 22an, *Euskalduna* Jauregian, *Euskotren*-en irudi berria aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak. Xabier Kintana joan da Euskaltzaindiaren izenean.

II. Akademia-jarduera

II. AKADEMIA-JARDUERA

BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: **Iker saila** eta **Jagon saila**. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetoako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioetako teknikariak eta beste. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindikoko batzordeek 2004an egindako bileren berri:

Batzordeak	Bilerak
Hiztegi Batuko lantaldea	11
Gramatika batzordea	6
Dialektologia-Atlasa batzordea	24
Onomastika batzordea	25
Herri Literatura azpibatzailea	10
Literatura Ikerketa azpibatzailea	10
Euskara Batuko batzordea	(*)
Jagoneko Corpus batzordea	14
Jagoneko Sustapen batzordea	3
Argitalpen batzordea	1
Azkue Biblioteka batzordea	4
VIII. Jagon Jardunaldia	1
GUZTIRA:	109

(*) Batzorde honek ez du bilerarik egin. Batzordeko idazkaria arduratu da lanaren kudeaketaz eta batzordekideekiko harremana posta elektronikoz bideratu du.

II.1. HIZTEGIGINTZA

Hizkuntza Akademia batentzako hizteigintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Une honetan Euskaltzaindiak bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

II.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Orotariko Euskal Hiztegia-ren xedea, hiztegi historikoa eta deskriptiboa den aldetik, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. Menderik mende eta euskalkiz euskalki euskaldunak nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua du hiztegi honek. Egitasmo hau aurrera eramateko, hitzarmena 1984an sinatu zen Herri Aginteeekin. Lehen liburukiak 1987an ikusi zuen argia eta, guztira, 16 liburuki izango dira.

XVI. liburukia

Zuzenketak

Ut - Zuz zerrendaren testua zuzendu da. Zuzenketa-lanok epeka egin dira (ikus eranskina):

- a) Adibideen zuzenketa (hiztegiaren gorputz nagusia osatzen duten testu eta adibideak).
- b) Sarrera-buruak (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.).
- c) Koordinazioa eta zuzenketa.
- d) Zuzenketa filologikoa.

Idazketa

Zur - Zuz letren arteko sarrerak egin dira, XVI. liburukiari dagozkionak (ikus eranskina).

II. ERANSKINA

2004ko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazio eta zuzenketa		Testu zuzenketa	Sarrera-buruen zuzenketa	Zuzenketa fil. eta lexik. makinaratzea
Urtarrila	txo-/tz-	sud-	txi-/u-	tx-/uk-	sud-/txi-
Otsaila	u-/ur-	↓	u-/uk-	uk-/ur-	
Martxo	ur-/urr-	tuz-	ul-/urd-	uk-/ur-	
Apirila	urr-/us-	txi-	ul-/urd-	ur-/us-	txi-/tz-
Maiatza	us-	↓	urd-/urru-	ur-/us-	u-/urr-
Ekaina	us-/uu-	tz-	urs-/usu-	ur-/us-	sub-/tz-
Uztaila	us-/uu-	u-	urs-/usu-	us-	us-/uz-
Abuztua	ut-/uu-	u-	urs-/usu-	us-	us-uz- u-
Iraila	2. itzulia su-/tar-		urs-/usu ut-/w-	ut-	
Urria	tar-/usu-	sub-	ut-/w-	ut-	2. itzulia su-/uk- su-/te-
Azaroa	ut-/w-	usu-	xa-/xe-	ut-/uz-	te-/us- uk-/us-
Abendua	xa-		xa-/xe-	ut-/uz- xa-	

II.1.2. HIZTEGI BATUA

Orotariko Euskal Hiztegia deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Euskaltzaindiak arlokako eta zatikako zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatalgo izendegia*, etab. Hiztegi hauez gainera, Akademiak nahitaezkoztat jo zuen euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatzea da xedea, beti ere hizkuntzaren batasunari begira.

Hiztegi Batua-ren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuak jaso dira. Bigarren batean erabilera urriagokoak jasotzen ari dira. Lehenengo itzulian 20.000 hitz inguru landu eta onartu dira. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma ditu aztergai. Batzordeak 1997an ekin zion bigarren itzuli honi. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitzetik gora izango du *Hiztegi Batua*. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-zerrendak, osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman zituen argitara, atalez atal. Eta 2000n, liburu bakarrean, *Euskera* agerariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu ziren lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

Hitzen azterketa

Hiztegi Batuko lantaldeak, 264 forma aztertu ditu aurten. Horiek guztiak, zerrenda osagarriari dagozkio, hau da, EEBS (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa) corpus osatuan 3 agerralditik gora dituzten formei: *ulema* eta *zuzper* artekoei. Hitz horiek aztertu egin dira lantaldean, kasuan kasuko proposamenara iritsiz.

Forma horiek lantzeko eta horiei buruzko proposamenak egin ahal izateko, erabilera idatziaren eta bestelako informazioen lekuko diren 341 txosten izan ditu esku artean lantaldeak, UZEIko prestalanekeo taldeak eginak; iturri nagusitzat *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) eta Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS) corpusak izan dituzte txosten horiek.

Horrezaz gain, batetik, euskaltzainek bigarren itzulikoak aztertzerakoan proposatu dituzten forma berriak lantzen eta, bestetik, lantaldeak berak hurrengo itzulirako utziak txukuntzen ere jardun du. C letran hasitakoetatik *ikastunitate* arteko formak ikusi ahal izan ditu, beti bezala bere informazio eta irizpideen argitan.

Irizpideen txostena eguneratzea

Lantaldearen irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz joan da, auzigai berriak agertu ahala, dagokien konponbidea finkatu ahal izateko.

Irizpide horien eta kasuan kasuko informazioaren argitan aztertu diren forma edo hitz bakoitzaz lantaldeak bere iritzia eskaini du, batzuetan zabalago, soilago besteetan, onartzeko forma den esanaz, edo bigarren mailan onartzeko den, edo okerra den, zein erabilere-mu duen, nola ageri den sintaxian, zein den duen adiera, etab.

Literatura hiztegiari buruzko irizpena

Literatura Ikerketa azpibatzerdearen eskaria jaso du Hiztegi Batuko lantaldeak, *Literatura hiztegia* izango denaren sarrerak gainbegiratzeko. Guztira, 617 hitz edo forma aztertu dira. Lana aztertu ondoren, egindako oharrek helarazi dizkio Literatura Ikerketa azpibatzerdeari, kasuan kasuko azalpenak emanez.

Arauk

Euskaltzaindiak, urtean zehar egin dituen osoko bilkuretan, Hiztegi Batuko honako hitz-zerrenda hauek onartu ditu:

- *aurpegiara - azalkeria*
- *azalkizun - azuzena*
- *b - berriz*

UZEIrekiko lankidetz

Aurreko urteetako harremanei utsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2004an ere. Euskaltzaindiak emandako diru-laguntzaren trukean UZEIk lan hauek egin ditu Akademiarentzat:

- Hiztegi Batuari dagokionez, E-S letretako aktak osatu eta T-Z letretako sarrerak lantaldean eztabaidatu eta ondoren aktetara pasatu.
- Iritzi-emaileek eta euskaltzain osoek egin dituzten oharrek bildu, batzar-agirietako erabakiak jaso eta guztiaren kontrola eraman, ondoko urratsetan kontuan izateko.
- Euskaltzaindiak geroago aztertzeke utzi dituen sarrerei eta beste batzorde edo eta lantaldeetatik etor daitezkeen informazio eskaerei erantzun.
- Hiztegi Batuko lantaldearen ardura eta idazkaritza eraman.
- Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoari (EEBSri) dagokionez, interneten dagoen XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa etengabe eguneratu, Euskaltzaindiak hartutako erabakien arabera.



Donostiako ordezkarietan, UZEIrekiko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bilera, 2004-VI-15ean. **Ezkerretik eskuinera:** Xabier Kintana, Imanol Ubieta, Mariam Urkia eta Jose Luis Lizundia.

II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 1999ra bitartean zortzi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) lehenbizikoa darama oraingoz eskuartean.

Menderakuntzari buruzko gaiak

Aurreko urteetan bezala, 2004an ere menderakuntzari buruzko gaiak lantzea izan du eginkizun nagusia batzordeak. 1999. urtean *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko Perpausak-1)* liburukia argitaratu ondoren, geroztik batzordea gramatiken saileko hurrengo liburukia prestatzen ari da, *EGLU VI* izango dena.



Donostiako ordezkartzan, Gramatika batzordearen bilera, 2004-XII-3an. **Ezkerretik eskuinera:** Jose Antonio Mujika, Paskual Rekalde, Luis Baraiazarra, Maria Pilar Lasarte eta Juan Garzia.

2004. urtean, batetik menderakuntzazko bigarren liburukiak izango dituen kapitulu hauen azken osatzea egin da:

- Kontzesio perpausak
- Moduzko perpausak
- *Baina* enklitikoa
- Kausazko perpausak
- Helburuzko eta baldintzazko perpausak.

- Liburuaren sarrera eta bibliografia egin dira.

Batzordeak bi kide izendatu ditu argitalpenaren orrazketa eta gaien azken aurkibidea egin dezaten, txostengileen azken lanak jaso ondoren.

Bestetik, menderakuntzari buruzko hirugarren liburukiaren eskema orokorra, alegia, aditz jokatu gabea duten mendeko perpausen ikerketa jasoko duenarena, eztabaidatu eta finkatu da. Txostenak egiteko erabiliko diren edukizko eta formazko irizpideak ere eztabaidatu eta finkatu dira, liburuak izango dituen txostenen banaketa egin da eta horien prestaketa zein batzordekideek egingo duen erabaki.

Hizkuntza kontsultak

Galdera gehienak, Euskaltzaindia 2001ean eskaintzen hasi zen Jagonet Zerbitzuaren bidez jaso dira. Horietako batzuk Gramatika batzordean aztertu dira eta beste batzuk, berri, horretarako izendatuak izan diren batzordekideek aztertu eta erabaki dituzte, gaiaren arabera. Hona hemen, erantzun diren galdera nagusiak:

- *20 kilometroz / kilometririk / kilometrotik / kilometrotarik behin*: batzordearen iritzia eta hobespenak.
- *Aditz ez-akusatiboen aipamenak EGLU batean.*
- *Behe nafarrerari buruzko gramatiken berri ematea.*
- *Botea / botia / botaa / botiaia.*
- *-enarekin batera*: aditz jokatuak onartzen ote duen menderagailu hau.
- *Euskal filologian lizentziaduna, funtziotan lehendakaria bezalakoak.*
- *Gogorra izan behar du Vesubioren magalean bizitzea / bizitzeak.*
- *Gu gara erabaki hori hartu behar dugunok / dugunak / dutenak.*
- *Nidokazu aditzaz.*
- *Posible izan / posiblea izan.*
- *-ren buruz* postposizioaren egokitasunaz.
- *-ri buruz / -ren buruz.*
- *Soilik-en kokaguneaz.*
- *Soldatapean / soldataren pean.*
- *-zale / -tzale*: noiz bata eta noiz bestea Hiztegi Batuan?
- *zeren / ze* lokailu erabileran.
- *Zuk bezalako zapatak / zureak bezalako zapatak.*

Irizpena ematea: Erdarazko egituren kalko okerrak

Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, Sail horrek argitaratu nahi duen *Erdarazko egituren kalko okerrak* lanari buruzko irizpena ematea eskatu dio Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak lan hori aztertzea eta irizpena prestatzea Gramatika batzordearen esku utzi du, eta urtearen bukaeran aztertzeari ekin dio batzordeak.

II.3. DIALEKTOLOGIA

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 ordutik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

Atlasgintza

Atlaseko lantaldeak 2004an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- inkesten datuak base automatizatuan sartzen jarraitzea
- datuak lantzea, datu-basea prestatuz eta mapak editatuz
- programa informatiko berria gainbegiratzea

Laugarren koadernoko inkesten datuak sartzen jarraitu

2004. urtean 6 inkesta informatizatu dira EHHA egitasmoan:

- Zuberoa (6): Altzai, Domintxine, Larraine, Pagola, Sohüta eta Urdiñarbe.

Bestetik, 13 herri hauen zuzenketak sartu dira:



Egoitzan, Atlas lantaldearen bilera, 2004-XI-11n.

Ezkerretik eskuinera: Koro Segurola, Izakun Etxebeste, Xarles Videgain eta Gotzon Aurrekoetxea.

- Bizkaia (4): Bermeo, Busturia, Otxandio eta Zeanuri.
- Gipuzkoa (4): Araotz, Arrasate, Oñati eta Leintz-Gatzaga.
- Nafarroa (1): Mezkiritz.
- Lapurdi (1): Bardoze.
- Nafarroa Beherea (1): Bastida.
- Zuberoa (2): Domintxine eta Larraine

Atal honetako lexikoak duen konplexutasuna dela eta (teknologia tradizionalako garraioak, lurra lantzeko lanabesak, sagardo / ardogintza...) zintak entzutera jo behar izan da sarritan.

Datuak lantzea

Arlo honetan urrats hauek egiten dira: lehenik mapak egin, berrikusi eta zuzendu; eta ondoren, datuak elaboratu eta mapen eta datu-basearen azterketa egin.

Bigarren liburukia

13, 14 eta 15. gaietan azken zuzenketak sartzen jarraitu da. Bestalde, erantzun onartuen oharren aztertze tipografikoa gauzatzen jarraitu da eta 10-12 gaien azteketarekin segitu.


Laugarren liburukia

Liburuki honek izango dituen 260 galderatik 56 mapa egin dira 2004. urtean, eta egindakoak zuzentzen aritu dira batzordekideak.

Informatika bateratzea burutu

Bereziki Nafarroako Gobernuak aurkeztutako premiei erantzun ahal izateko, Euskaltzaindiak programa informatikoaren eguneratzeari ekin zion 2003an, eta 2004an amaitu.

lehen lau liburukien egoera



EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA
DATU-SARRERA: 4a. ATALA

2004an informatizatutako herriak

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
101 Getxo						
102 Leioa						
103 Zollo						
104 Sondika						
105 Laukiz						
106 Lemoiz						
107 Uribe-Etxebarri						
108 Zaratamo						
109 Orozko						
110 Mungia						
111 Zeberio						
112 Bakio						
113 Fika						
114 Larrabetzu						
115 Arrieta						
116 Lemoa						
117 Dima						
118 Zeanuri						
119 Errigoiti						
120 Bermeo						
121 Busturia						
122 Euba						
123 Mañaria						
124 Otxandio						
125 Ibarri						
126 Mendata						
127 Kortezubi						
128 Elantxobe						
129 Berriz						
130 Arrazola (Atxondo)						
131 Elorrio						
132 Bolibar						
133 Gizaburuaga						
134 Lekeitio						
135 Markina-Etxebarri						
136 Ondarroa						
201 Aramaio						
301 Leintz-Gatzaga						
302 Arrasate						
303 Eibar						
304 Araotz (Oñati)						
305 Oñati						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
306 Bergara						
307 Elgoibar						
308 Mendaro						
309 Deba						
310 Azkoitia						
311 Urretxu						
312 Legazpi						
313 Zegama						
314 Ezkio-Itsaso						
315 Zestoa (Arroa)						
316 Azpeitia						
317 Getaria						
318 Beizama						
319 Beasain						
320 Ataun						
321 Errezil						
322 Aia						
323 Orio						
324 Asteasu						
325 Ikaztegieta						
326 Amezketeta						
327 Tolosa						
328 Donostia (Ibaeta)						
329 Lasarte						
330 Andoain						
331 Elduain						
332 Oresa						
333 Hernani						
334 Pasaia						
335 Oiartzun						
336 Hondarribia						
401 Urdiain						
402 Arbizu						
403 Dorrao						
404 Gaintza						
405 Leitza						
406 Etxarri						
407 Oderitz						
408 Goizueta						
409 Ezkurra						
410 Beruete						
411 Igoa						
412 Etxaleku						
413 Suarbe						
414 Sunbilla						
415 Donamaria						
416 Etxalar						
417 Alkotz						
418 Aniz						
419 Lekaroz						
420 Zugarramurdi						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
421 Eugi						
422 Erratzu						
423 Zilbeti						
424 Mezkiritz						
425 Luzaide						
426 Abaurregaina						
427 Eiaurrieta						
501 Hendaia						
502 Donibane-Lohizune						
503 Azkaine						
504 Sara						
505 Senpere						
506 Ahetze						
507 Arrangoitze						
508 Uztaritze						
509 Mugerre						
510 Itxasu						
511 Urketa						
512 Beskoitze						
513 Hazparne						
514 Makea						
515 Bardoze						
601 Aldude						
602 Bidarrai						
603 Baigorri						
604 Arnegi						
605 Uharte-Garazi						
606 Irisarri						
607 Isturitze						
608 Arruta-Sarrikota						
609 Armendaritze						
610 Esterenzubi						
611 Gamarte						
612 Landibarre						
613 Behorlegi						
614 Arboti						
615 Garruze						
616 Jutsi						
617 Larzabale						
618 Bastida						
701 Phagola						
702 Domintxine						
703 Urdiñarbe						
704 Altzürükü						
705 Larrañe						
706 Altzai						
707 Sohüta						
708 Muntori						
709 Santa-Grazi						
710 Ürrüxtoi						
711 Barkoxe						
712 Eskiula						

II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi “Herri eta Herritarren Izenen batzordea” izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.

Batzorde honek ponte-izenak, deiturak, leku-izenak eta exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.

Euskal Deituren Izendegia osatzen

Euskal Deituren Izendegia 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 56 deitura finkatu dira batzordean 2004an zehar.

Ponte izendegia osatzen

Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms liburua 2001ean argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren 34 pertsona-izen finkatu dira batzordean 2004. urtean.

Toponimia-lanak gainbegiratu

Herri hauetako toponimia-lanak aztertu dira: Aretxabaletako osoa, Tolosako lehen zatia eta Zaldibarreko osoa amaitu.

Erandioko toponimia-lana aztertzeke Udalak sortu duen deialdirako epai-mahaikideak eta lanaren gainbegiratzalea onartu dira.

Bestetik, Meñakako mapak jasoko dituen 198 toponimo onartu dira eta Bakioko mapan joango diren 182 toponimo.

Herri-izendegiak eta eskualdeak

Gipuzkoako herri-izendegiko 184 izen onartu ditu batzordeak: batetik, Donostia eskualdeko 26 herri eta herritarrenak, Tolosa eskualdeko 56, Goierri eskualdeko 50, Urola Kosta eskualdeko 24 eta Debarroa eskualdeko 28.

Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak

Lan hau, batez ere 2004an EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartearekin) Euskaltzaindiak egin duen hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da:

1. Herri-, auzo-, kale-, industrialde-, baserri-, baseliza- eta etxalde-izenez herri hauetako udalei erantzun zaie idatziz edo bertara joanez: *Altsasu, Amurrio, Arabako Bastida, Berriatu, Deierrri, Doneztebe, Eibar, Errenteria, Etxebarri, Elgoibar, Galdakao, Gabiria, Gasteiz, Gernika, Getxo, Iguzkitza, Iruñea, Mendarozketa, Olatzagutia, Ondarroa, Ordizia, Salinillas de Buradón, San Román de Campezo, Sestao, Zigoitia eta Zumarraga*. Guztira, 945 izen finkatu dira.

2. Beste erakunde hauei ere erantzun zaie: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Irrati Telebista.

Onomastika Zerbitzua

Euskaltzaindiak, Onomastika Zerbitzua sortzea erabaki du. Batzordeak, bestalde, egitasmo berri honi buruzko txostena prestatu du: Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoa.

Araugaiak prestatu

1. Batzordeak *Euskal Herria izena* deituriko araugaia prestatu du, iaz Euskaltzaindiak onartu zuen adierazpenean oinarrituta. Euskaltzaindiak, uztailleko batzarrean onartu du arau bezala.
2. *Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak*: antzinateko eskualdeen zerrenda aztertu du batzordeak eta azaroko osoko batzarrean aurkeztu. Euskaltzaindiak, abenduko osoko batzarrean onartu egin du arau hori.
3. Batzordeak prestatu eta onartu duen *Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafiko-en erabilera* izeneko txostena Euskaltzaindiaren osoko batzarrean aurkeztu da, eta osoko batzarrak onartu, arau bihurtuz.

Irizpenak eta irizpideak

1. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Sailburuarengandik eskaria jaso du Euskaltzaindiak 2004ko urrian, gai honi buruzko irizpena emateko: *Eskola-liburu eta -testuetako onomastika finkatzeko saioa: irizpideak*. Euskaltzaindiak Onomastika batzordearen esku utzi du. Exonomastika azpibatzoordeak 300 orrialdetik gora duen lana aztertzeari ekin dio, oinarritzko txostena egitea batzordekide baten gainean utziz; gaia aztertzeako berariazko bilerak egin dira 2004an.
2. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, *Bizkaiko toponimia* azterketa-lanari buruzko txosten gehigarria egin du, eta Euskaltzaindiari aztertzea eskatu dio. Onomastika batzordeak txosten hori aztertzen, zuzentzen eta osatzen jardun du urtean zehar.

Banakako kontsultak

Lehenago aipatu diren pertsona-izen eta deiturez gain, herritarrek zuzenean (internet bidez, gutunez eta ahoz) egindako kontsulta ugarietara ere erantzun zaie.



Egoitzan, Onomastika batzordearen eta elizbarrutietako ordezkarien bilera, 2004-X-24an.

Ezkerretik eskuinera: Mikel Gorrotxategi, Andres Iñigo, Jesus Maria Elejalde eta Eustasio Etxezarreta.

Eliza eta Onomastika


Onomastika batzordeak Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionako elizbarrutietako ordezkariekin egin du bilera urriaren 14an. Harreman honen xedea onomastika arloan elkar-lanean aritzea da.

Gasteizko Toponimia lantaldea

Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, lau ikerlariz osatutako lantaldeak dihardu, Gasteizko ordezkarietan, bertako Udalbarrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen, ondoren argitaratzeko.

Hori dela eta, lehen liburukia izango dena prestatzen ari da lantaldea, jasotako 400.000 toponimoetatik *Malizaeza* deritzon azpi-eskualdekoak zuzenduz eta normalizatuz. Horrez gainera:

1. Lanaren sistematizazio berria egin da. Horren bidez, helburuak, epeak, egileak eta lanaren inguruko eginkizun guztiak finkatu dira.
2. Gainerako azpi-eskualdeak osatzen dituzten herrien datu basea prestatzen eta osatzen jarraitu da.
3. Lantaldeko bi ikerlarik Gasteizko hirigunea aztertzen jardun dute. Horretarako, honako artxibo hauek (Archivo Municipal de Vitoria, Archivo Histórico Diocesano, Archivo Histórico Provincial de Álava, Archivo del Territorio Histórico de Álava, Archivo de las Universidades Eclesiásticas) arakatzear gain, beste iturri hauetara jo dute:
 - 1838tik 1940. urte arteko kale-izendegiak eta etxeen zenbakiak.
 - Hiriko Expedienteak, 1970. urtetik 2000. urteko abendura artekoak, Udal Kultura Etxeak duen Artxibategikoak.



Gasteizko ordezkarietan, Gasteizko Toponimia lantaldekideak, 2004-XI-26an.

Ezkerretik eskuinera: Elena Martínez de Madina eta Zuriñe Rescalvo.

- 2004. urteko Gasteizko kale-izendegiaren berrazterketa, aldaketak eta kale berriak kontuan hartuta.
4. Behean aipatzen den bibliografiaren arabera, Gasteiz Udalbarrutiko kaleen izenen datu historikoak jaso dira:
- Bastida, J. M. Egunkarietan agerturiko artikuluen azterketa.
 - Cola y Goiti, José. *Guía de Vitoria*.
 - Del Val, Venancio. *Calles Vitorianas*.
 - Izarra Retana, Jesús de. *Vecindades, Cofradías y Gremios. Artesanado de Álava*.
 - Martín Latorre, Peli. *Hospitales peregrinos y... otras cosas*.
 - Núñez de Cepeda y Ortega, Marcelo. *Hospitales vitorianos*.
 - Velasco, Ladislao de. *Memorias del Vitoria de antaño*.
 - Orotariko bibliografia (hiztegiak, entziklopediak, etab.).

II.5. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura batzordea bi arlo nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturaren hiztegia lantzen dihardu: hitz zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera desberdineko txostenak eskainiz. Helburua seihun inguru txostenez osatutako hiztegia eskaintzea da.

Herri Literaturakoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen badute, hala nola sariketetako epai-mahaietan, sari banaketetan eta hitzaldiak ematen. Bestalde, Literatura Ikerketa azpibatzerdeak parte hartzen du autore ospetsuen omenaldietan, omendutako pertsonen buruzko ikerketa txostenak eginez.

II.5.1. HERRI LITERATURA

VIII. Herri Literatura Jardunaldiak

Ezinezkoa gertatu zaio azpibatzerdeari jardunaldi horiek aurten egitea, eta urtebete atzeratzea erabaki du. Jardunaldi horiek herri-prosaz izango dira eta Donostian egingo dira, Koldo Mitxelena Kulturunean, 2005eko azaroaren 24 eta 25ean. Aurten, jardunaldi horien prestaketan jardun du azpibatzerdeak.

Herri literaturaren arloko ekintzetan parte hartu

Argitalpen lan hauek egin dituzte batzordekide zenbaitek:

- Joxe Mari Aranalde: “*Hiruki* baten hirukoa”, iritzi-artikulua, *Oarso* Errenteriako aldizkarian.
- Jabier Kaltzakortaren hiru idazlan: “Una colección antigua de coplas vizcaínas” (9-63), “Humboldt-ek bildu zituen euskal kanta eta esaeren gainean” (119-132) eta “Notas acerca del personaje Betiri Sants” (187-231), *Litterae Vasconicae* aldizkariaren 9. zb.
- Jabier Kaltzakortak beste bi artikulua idatzi ditu *Idatz & Mintz* aldizkarirako: ‘Begi belch bati’ *olerki zoragarria Villinch-ena ote?* eta Jaun Zuriano *baladaren aldaera zahar-berri bat*.
- Joxe Mari Iriondo: “Durango: 2003ko Euskal Liburu eta Disko Azokaren hasierako hitzaldia”, *Euskera*, 2003, 2, 640-679. orr.
- Antonio Zavalak, Joxe Mari Aranalde eta Joxe Mari Iriondo azpibatzerdekideek *Odolaren mintzoa*-ren aurkezpena egin zuten, Donostian, urriaren 13an, Koldo Mitxelena Kulturunean, eta Urepelen azaroaren 7an.
- Joxe Mari Iriondok egin du Imuntzo eta Belokiren *Urola aldeko trikitixa* diskoarekin batera argitaratu den liburuxka.

Epaimahaietan:

- Joxe Mari Iriondok eta Pello Esnalek parte hartu dute, Aia eta Zarautzen arteko bertsolarien desafioaren antolaketan. Abenduaren 11n jokatu da, Aiako Urdaneta auzoan.
- Joxe Mari Iriondok eta Joxe Mari Aranaldek sari bana jaso dute, bertso-jaialdietan gai jartzen egindako lanagatik: *Ahobi 2004* saria, *Getxoko Algorta auzunean* Bertsolari Eskolak emana, abenduaren 27an.

II.5.2. LITERATURA IKERKETA

Literatura Hiztegia

Sarrerren egokitasuna

Hiztegiak izango dituen 617 sarrerei buruzko irizpena eskatu dio batzorde honek Hiztegi Batuko lantaldeari. Besteak beste, maileguten eta neologismoen gaia aztertu da azpibatzerdean, eta hitz edo formetan erabilitako lexikoaren egokitasunaz egin dio galdera Hiztegi Batuko lantaldeari. Jasotako erantzunaren aurrean zenbait zuzenketa eta moldaketa egin ditu azpibatzerdeak.

Sarrerak lau hizkuntzatan

Hiztegiaren atal batean, euskarazko sarrerren baliokideak emango dira frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez, eta, horretarako, hiru hizkuntza horietako ordainen zerrenda osatu du azpibatzerdeak, xeheki aztertu eta eztabaidatuz.

Sarrera batzuen zuzenketa

Artikulu hauek zuzendu dira:

- Ahapaldia
- Antzerkia
- Autobiografia
- Hizkera / Hizkuntza
- Kanpo literario
- Memoria
- Plagiat
- Saiakera
- Testu

Bibliografia

Bibliografia dela eta, iritzi desberdinen eztabaida egin da irizpide bateratuak lortu ahal izateko.

Testu osoaren egokitzapena

Hiztegiko sarrera guztiak biltzen dituen dokumentua banatu zaie batzordekideei, egile bakoitzak bere lana gainbegiratu ondoren, azken zuzenketak nola egin behar dituen ere azalduz.

Epaimahaikideak proposatu

Literatura-sari hauetan epai-mahaikide izateko izen-proposamenak egin dizkio Euskaltzaindiari azpibatzerde honek:

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak 2004an zabaldu dituzten sariak:

- Txomin Agirre eleberria
- Toribio Alzaga antzerkia
- Felipe Arrese Beitia olerkia
- Mikel Zarate saioa
- Gazteentzako Azkue sariak: A eta B arloetarako hiruna kide.

Kultura Ministerioaren Sari Nazionalak:

- Olerkia
- Narratiba
- Saiakera
- Antzerkia
- Haur Literatura

Literatura Jardunaldiak

Azaroaren 18 eta 19an, Baionako Fakultatean, XVIII. Mendeko Euskal Literaturari buruzko jardunaldiak egin dira, eta batzordeko zenbait kidek hor parte hartu du hitzaldia emanez.

II.5.3. SARIKETAK

Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2004ko irabazleak honako hauek izan dira:



Egoitzan, 2004ko lau literatura sari nagusiak ematea, 2004-XII-10ean.

Ezkerretik eskuinera: Juan Jose Izpizua, Pantxo Hirigarai, Aintzane Galardi eta Xabier Agirre.

- Txomin Agirre eleberri saria: *Harizpeko nes karen afera*. Juan José Ispizua Hormaetxea.
- Toribio Altzaga antzerki saria: *40 urteak*. Pantxo Hirigarai.
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: *Itoti urdinaren azpian*. Aintzane Galardi Portu.
- Mikel Zarate saiakera saria: *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?* Xabier Agirre Urteaga.

Epaimahaikoak, jaun-andre hauek izan dira:

- Txomin Agirre sarian: Maria Jose Olaziregi, Txomin Peillen eta Ana Toledo.
- Toribio Altzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

R. M. Azkue sariak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2004ko R. M. Azkue saria irabazi dutenen berri:

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Ama</i> 2) <i>Denboran barrena</i> 3) <i>Patuaren menpe</i>	Enma Arestegi Laida Zabala Sara Insausti	Xalbador (Kanbo) Lauaizeta (Donostia) Udaneta (Ordizia)
A: olerkia 10 - 13 urte	1) <i>Bihotza uhinetan, uhinak bihotzean</i> 2) <i>Hegoa (Ilobaño zenduari)</i> 3) <i>Soka artean</i>	Enma Arestegi Lorea Sabarots Iraitz Ugalde	Xalbador (Kanbo) Xalbador (Kanbo) Institua (Lezo)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Triste nago</i> 2) <i>Askatasunak larrosa usaina du, baina</i> 3) <i>Harresi gorriak</i> Accesit: - <i>Ispilu atzeko deabrua</i> - <i>Mugagabearen mugatasun irreal</i>	David Fernandez Garazi Ansa Antton Alberdi Amaia Rodriguez Ane Badiola	Asti Leku (Portugalete) Haurtzaro (Oartzun) Institua (Elgoibar) Aranzadi (Bergara) Haurtzaro (Oartzun)
B: olerkia 14 - 17 urte	1) <i>Engoitik Ithakan</i> 2) <i>Bakarrizketan diharduten zuhaitze- tako hosto lehorrak</i> 3) <i>Aspaldi alde egindako eta oraindik gogoan dudan aitonari</i> Accesit: - <i>Itsas aparrak narama</i> - <i>Nortasunaren saski oparoa</i>	Miren Estibaliz Vivanco Olatz Mitxelena Haritz Casabal Garazi Ansa Ane Badiola	Lauro (Bilbao) Haurtzaro (Oartzun) Lizeoa (Pasai Lezo) Haurtzaro (Oartzun) Haurtzaro (Oartzun)

Honako jaun-andre hauek izan dira epaimahaikide sariketa honetan:

- A mailan, Igone Etxebarria, Amagoia López de Larruzea eta Manu Lopez Gaseni.
- B mailan, Joseba Butron, Kirmen Uribe eta Jabier Kaltzakorta.



Egoitzan, 2004ko Azkue sariak ematea, 2005-III-2an.

Sarien irabazleak eta Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkariak, Euskaltzainburua eta Jabier Kaltzakortarekin

Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea

- Urtero, Espainiako Kultura Ministerioak ematen dituen “Literatura Sari Nazionalerako”, Euskaltzaindiaren izenean 2004ko deialdian parte hartzeko izendatu diren epaimahaikideak honako hauek dira:
 - *Poesia* arloan, Jon Kortazar Uriarte.
 - *Narrazioan*, Maria Jose Olaziregi Alustiza.
 - *Saiakeran*, Patrizio Urkizu Sarasua.
 - *Antzerkian*, Aitzpea Goenaga Mendiola.
 - *Haur eta Gazte literaturan*, Xabier Etxaniz Erle.
 - *Itzulpen sarian*, Joseba Urzelai Agirre.
 - “Premio Nacional de las Letras Españolas” delakoan, Jose Luis Lizundia Askondo.
- Iruñeko Udalak urtero antolatzen dituen Literatura leihaketatako epaimahaietan, ordezkari hauek izan dira Euskaltzaindiaren izenean:
 - Euskarazko *Haur literaturan*, Paskual Rekalde.
 - *Egile Berriendako Literatura* lehiaketan, Patziku Perurena.
- *Bertso jarriak*: Joxe Mari Iriondok eta Pello Esnalek, Aia eta Zarautzen arteko bertsolarien desafioren antolaketa parte hartu dute.

II.6. EUSKARA BATUA

Euskaltzaindiak aspaldi dihardu batasungintzan. Eta batasungintza esatea eta araugintza esatea bat dira. Akademiaren lehentasunetariko bat da hiztegegintza, eta eginkizun horretan oinarritzen da Euskara Batuko batzordearen izaera, Hiztegi Batuko lantaldetik hitz-zerrendak jasoaz eta Euskaltzaindiaren osoko bilkuran aurkeztuz, eta zerrenda horiei egiten zaizkien oharren eztabaida ere bideratuz.

Aurkezturiko zerrendak

Euskara Batuko batzordeak, Hiztegi Batuko lantaldetik jaso dituen zerrenda hauek gainbegiratu ditu, eta Euskaltzaindiaren hileroko osoko bilkuretan aurkeztu:

b – berriz
berritzaile – byte

Azterturiko oharrak

Proposamenak osoko bilkuretan aurkeztu ondoren, oharrak egiteko epea izan dute euskaltzainek hileroko. Euskara Batuko batzordeak, honako hitz-zerrenda hauei egin zaizkien 204 ohar aztertu ditu, eta erabaki-proposamenak osoko bilkuretan aurkeztu, ondoren:

azalki – azuzena
b – behako

II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du *Jagon Saila*, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua:

- *Corpus* batzordea euskararen corpora jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

II.7.1. CORPUS BATZORDEA

JAGONET: kontsulta- eta aholku-zerbitzua

2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean –Euskaltzaindiaren webgunean– JAGONET zerbitzua (www.euskaltzaindia.net). Emandako erantzunen datu-basea ikusteko eta galderak egiteko aukera eskaintzen da.



Donostiako ordezkartzan, 2004-XII-3an.
Joxe Ramon Zubimendi.

- Galdeleku informatikoa, posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua da galdegilearekiko). Urtean zehar 841 galdera jaso dira, eta horietako 830 galderari erantzun zaie.

- Galde-erantzunen datu-basea, emandako erantzunak bilduz osatzen doana. Aurten 140 galde-erantzun prestatu dira eta, urtearen bukaeran datu-basea 522 galdera-erantzunez osatua da.
- Interneteko kontsultak. Urtean zehar, batetik 47.126 bilaketa egin dira datu-basean eta, bestetik, 39.418 aldiz bistaratu da JAGONETen orri nagusia.

Euskalkien erabilerari buruzko adierazpena

Euskalkien lantaldeak, iazko lanari jarraituz, "Euskalkien erabilera irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan" izeneko txostena aurkeztu zion Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindiak onartu egin du adierazpen hori eta Arau maila eman, martxoko osoko batzarrean.



Egoitzan, Euskalkien erabilerari buruzko arauaren azalpena, 2004-VI-18an.

Ezkerretik eskuinera: Juan Luis Goikoetxea, Kaxildo Alkorta, Joxe Ramon Zubimendi, Jon Aurre eta Manu Ormazabal.

Ondoren, batzordeak, arau horren aurkezpen hauetan parte hartu du:

- Apirilaren 1ean, Euskaltzaindiaren egoitzan egin den prentsurrekoan: Andres Urrutia eta Paskual Rekaldek.
- Ekainaren 16an, Uhartan Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak antolatu duten Jardunaldiaren barnean. Hauek parte hartu dute: Andres Urrutia, Joxe Ramon Zubimendi, Patxi Iñigo eta Paskual Rekaldek.
- Ekainaren 18an, Euskaltzaindiaren egoitzan, irakaskuntza eta administrazioekoentzat antolatu den jardunaldian, hauek parte hartu dute: Andres Urrutia, Joxe Ramon Zubimendi, Juan Luis Goikoetxea, Jon Aurre, Kaxildo Alkorta eta Manu Ormazabalek.

Esapide-bilduma aztertu

Gernikako Udalak, bertako Berritzeguneak prestatu duen lan bat aztertzea eskatu dio Euskaltzaindiari, eta Euskaltzaindiaren zuzendaritzak, Corpus batzordearen esku utzi du *Guk holantxe, eta zuek? Busturialdeko eta Lea-Artibaiko esakerak* izeneko esapide-bildumaren onesp-en eskaria. Batzordeak, bertan ageri diren kalko semantiko okerrak zuzendu edota kentzea gomendatu ondoren, onspena eman dio eskaera horri.

Zegamako Udala

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Corpus batzorde honen esku utzi du Zegamako Udalak Euskaltzaindiari egindako eskariari erantzutea, *ostatu* hitzaren erabileraz. Kontua da Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak debekatua duela, *ostatu* hitza erabiltzea iragarpenetan, eta Zegaman “Herriko Ostata” izaki aspaldidanik, eta udalak izen hori galdu nahi ez. Auzi hori dela eta, batzordeak bere irizpena eman du.

EiTBko albistegiak

Euskaltzaindiaren zuzendaritzak Corpus batzorde honen esku utzi du EiTBk bertako albistegietako hizkuntzaren kalitateaz egin dion irizpen-eskaria, eta gaia aztertzen hasi da.

II.7.2. SUSTAPEN BATZORDEA

VII. Jardunaldietako hitzaldiak argitaratu

2003ko irailean egindako VII. *Jagon* Jardunaldietako txostenak bildu ondoren, Euskaltzaindiak Irunberrin egindako gainerako ekitaldiekin batera *Euskera* agerkarian argitaratu dira (ik. *Euskera* 2003, 2, 687-819. orr.). Hauek dira txostenak:

- Jose Enrique Garcés, Arangoiti ikastolako presidentearen ongi etorria.
- Andres Urrutia, batzordeburua: “Jardunaldien aurkezpena”.
- Xabi Lasa, Nafarroako Elizbarrutietako Euskal Pastoraltza Sailaren idazkaria: “Euskararen erabilera Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan”.
- Pello Apezetxea, Etxalarko erretorea: “Elizaren jarrera euskararen aurrean”.

Txosten horiek guztiak *separata* batean ere argitaratu dira.

Adierazpenak

Euskaltzaindiak, hizkuntzaren estatusaren ikuspegitik, adierazpen modura esan duen guztiaren bilduma prestatu da, informatika aldetik bateratu eta ordena kronologikoan jarri. Adierazpen horiei, bi dokumentu gehitu zaizkie: bata, *Euskal Herria* izenari buruz Euskaltzaindiak onartutako araua eta, bestea, Nafarroako ordezkari eta batzorde honetako idazkari den Andres Iñigok Nafarroako Foru Parlamentuan irailaren 8an Euskaltzaindiaren izenean irakurri duen txostena. Adierazpenez gain, gaiarekin zerikusia duten eranskin batzuk ere bildu dira.

Euskararen erabilera sustatzeaz

– *Real Sociedad de Fútbol* taldearen web orrian ageri diren euskarazko akatsen salaketa iritsi da batzordera. Batzordeak, futbol talde horren zuzendariari gutuna igorri



Donostiako ordezkarietan, Sustapen batzordearen bilera, 2004-IV-29an.

Ezkerretik eskuinera:
Andres Urrutia, Manu Ruiz Urrestarazu eta Erramun Osa.

- dio, web orria euskaraz egiteagatik zoriontzearekin batera, ahalik eta euskara zuzenena erabil dezan eskatuz.
- Erramun Baxok batzordekideak Iparraldeko euskararen egoerari buruzko dokumentazioa banatu du, Iparraldean gauzatzen ari den hizkuntza politikari buruzko informazio hurbilagoa izateko.
 - Nafarroako Uharteko Udaleko zinegotzi delegatuak, idazki baten bidez, Euskaltzaindiari galdegin dio, Uharteko ordenantzen arabera, udal horren aldizkari baten argitalpena elebiduna behar duen izan, ala gaztelaniaz testu osoa eta euskaraz horren laburpen bat. Batzordeak gaiari buruzko hausnarketa egin ondoren, bere iritzia eskaini du.



Gasteizko ordezkartzan, VIII. Jagon Jardunaldiak, 2004-XI-26an.

Ezkerretik eskuinera: Joseba Intxausti, Andres Urrutia, Jean Haritschelhar, Jose Luis Lizundia eta Andrés Ibáñez.

VIII. Jagon Jardunaldiak

Azaroaren 26an, Gasteizen, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkartzan egin dira jardunaldi hauek, egitarau honen arabera:

- Aurkezpena. Andres Urrutia, *Jagon* sailburua.
- “Gasteizko elizaren sortzea eta euskara”, Jose Luis Lizundia, euskaltzaina.
- “Eliza katoliko erromatarra eta euskara”, Joseba Intxausti, euskaltzain urgazlea.
- “Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik”, Andres Ibáñez, Gasteizko Teologia Fakultateko irakasle emeritua.
- “Euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoral jardueran”, Emilio Pérez, Aramaioko erretorea.

- Elkarrizketa.
- Azken hitzak, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Hurrengo urratsa, txosten horiek guztiak Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian argitaratzea izanen da, eta separata batean ere ematea.

Euskaltzaindia Nafarroako Parlamentuan

Nafarroako Foru Parlamentuak ponentzia bat eratu du Foru Komunitatean egin eta garatzen ari den Hizkuntza Politika aztertzeko. Parlamentuak, besteak beste, Euskaltzaindia gonbidatu du ponentzia horretan parte hartzera eta Euskaltzaindiak Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria eta Sustapen batzordeko idazkaria, izendatu du eginbehar horretarako. Txostenaren puntu nagusiak honako hauek izan dira:

- Euskaltzaindiaren izaera eta helburuak, *Jagon* Sailari dagozkionak bereziki.
- Euskaltzaindiak, jagole den aldetik, Nafarroako euskararen egoeraren aitzinean azkeneko 25 urte hauetan izan duen arreta berezia eta, ondorioz, egin dituen adierazpenak.
- Aitzina begiraturaz, Euskaltzaindiaren ustez Nafarroako Foru Parlamentuak hartu beharko lituzkeen neurriak, nafar guztien hizkuntz eskubideak bermatu ahal izateko eta Foru Komunitatean euskara gizartearen alor guztietan komunikazio tresna bilakatu ahal izateko.

III. Erakunde Zerbitzuak

III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Aurreko atalean ikusi den bezala, Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

III.1. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertotik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Argitalpen eta Banaketa zerbitzua, Batzordeen koordinazioa, Prentsa eta Komunikazioa, Informatika, Azkue Biblioteka eta Kontularitza. Egoitzan kokatzen da Akademiaren Zuzendaritza ere.

Erakundeei, Elkarteei nahiz gizabanakakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, Egoitzaz gainera, Euskal Herriko beste lau hiriburuetan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, bai egoitzatik eta baita ordezkarietatik bideratzen dira.

Ordezkarriak

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkarien bidez. Agerpen hauek *Oroitidazki* honen I. atalean azaltzen dira.

Jendaurreko zerbitzuak

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak (*ponte-izen* eta *deituren* ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz) etengabe erantzuten dira. Egoitzan 55 deitura eta 160 *ponte-izenei* buruzko ziurtagiriak egin dira.

Bestalde, interneten bidez, www.euskaltzaindia.net helbidean, 175.220 bisita izan dira Euskaltzaindiaren webgune honetan.

Erakundearen bilerak

Arrunki, Bilbon egin ohi dira hileroko osoen bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostiako ordezkarietan ere tartekatzen diren. Aurten osoko bilkurak Bilbon, Lezaman, Larresoron, Abadiñon, Lizarran eta Donostian egin dira. Zuzendaritzakoak, Bilbon, Donostian, Lezaman, Baionan, Abadiñon eta Durangon.

Donostiako ordezkarietan bildu dira batzorde eta lantalde hauek ere: Gramatika, Herri Literatura, *Jagon* saileko Corpus eta Sustapen batzordeak eta Euskalkien lantaldea. Argitalpen eta Azkue Bibliotekako batzordeak Egoitzan bildu dira. Onomastika batzordea

Gasteizen, Donostian eta Ziordian; Literatura Ikerketa, Donostian eta Orion; Dialektologia-Atlasgintza batzordea, Bilbon, Donostian eta Arrazolan.

Denetara 129 bilera egin dira 2004. urtean zehar.

Zuzendaritza

Gutxienez, hilean bitan biltzen da. Kudeatzaileak antolatzen ditu bilerak dagokien kargudunekin. Erakundearen gobernua, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardun-bidearen agintea eta erantzukizuna dagokio Zuzendaritzari.

Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagozkien Herri Administrazioakoei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu.



Donostiako ordezkartzan, Batzorde Teknikoaren bilera, 2004-XII-3an.

Ezkerretik eskuinera: Pello Telleria, Koro Urkizu eta Joseba Erkizia.

Euskaltzaindiko Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

Hauek izan dira informatika eta telekomunikazio arloetan egindako lan nagusiak:

Mantenu lanak: 2004. urtean zehar 827 mantenu intzidentzia gertatu dira guztira. Hona hemen sailkapena:

- Laguntza teknikoa erabiltzaileei (% 29,14)
- Instalazio, hobekuntza eta konfigurazio lanak (% 26,84)
- Matxurak eta ustegabekoak (% 11,85)

- Internet zerbitzuak (% 9,19)
- Ez-ohiko zeregin informatikoetan laguntzea (% 14,39)
- Birus eta inguruko kontrako ekintzak (% 6,65)
- Informatika-segurtasuna (% 1,93)

Informatizazio egitasmoak:

- EHHako lantaldearen programa berritzea (bigarren fasea, eta azkena)
- Nafarroako ordezkartzaren telefonia sistema berritzea
- Hiztegi gintzako etiketazio/erredakzio software berezietarako egitasmoak
- Iparraldeko ordezkartzaren Euskaltzaindiko VPNan (sare pribatu birtualean) sarreratzea
- Kontabilitate eredu berrirako SICALWIN plataformaren instalazioa
- Ikastaroa jaso UEUn: XML teknologiak
- Euskaltzaindiko informatika ekipamendua berritzeko egitasmoa
- LEF adibidetegiaren XML etiketazio lanak (2. liburukia)
- Egoitzaren aretoko ikusentzunekeo ekipamendu berria instalatzea
- Hiztegi Batuaren gaineko maiztasun/erraztasunaren araberrako mailaketarako aplikazioa.

Prensa eta Komunikazio zerbitzua

2000. urtean sortu zen zerbitzu hau, honako helburu hauekin: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko asmoz, gizarteak Akademiaren jardunaren berri izan dezan, batetik eta, bestetik, Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri emanez. Bost ataletan biltzen dira zerbitzu horren egitekoak:

- Prentsa: prentsaurrekoen programazioa eta antolaketa; prentsa-arekiko arreta; prentsa-dossiera eta artxiboa.
- Erakundearen beraren hedapena: euskaltzain *curriculumak* egitea eta eguneratzea; erakundearen eta egoitzaren historia laburra idaztea.
- Hemeroteca eta webgunea: prentsako erreferentziak jasota, sistematikoki sailkatzea; Euskaltzaindiaren Prentsa Artxibo Informatikoa (EPAI) egitea; webguneko albisteak eguneratzea, idazkariordearekin eta informatika teknikariarekin batera.
- Komunikazioa: egoitzan bertan edota Euskaltzaindiaren kanpo-ekintzak direla eta, sortzen diren harremanen komunikazio-ardura; biltzar, jardunaldi eta antzerako ekintza akademiko nagusia.
- *Albiste Orria*. Erakundearen hileroko informaziorako buletina egitea, idazkariordearekin batera.

* * *

Aurten, hauek izan dira prentsa bulego honetatik bideratutako ekintza nagusiak:

- Apirilean, Lezaman, "Mikel Zarate idazlearen omenezko jardunaldia", haren heriotzaren 25. urteurrenean.
- Ekainean, "Euskalkiak eta komunikabideak" izeneko jardunaldiak, Uhartan.
- Ekainean, "Maurice Harriet-en omenezko jardunaldia", Haltsun eta Larresoron.
- Ekainean, Adolfo Arejita euskaltzain berriaren izendapena.
- Uztailean, Jose Luis Lizundia euskaltzainaren sarrera-hitzaldia, Abadiñon.
- Irailean, Euskaltzaindiaren partehartzea "Kultur politiken berrikuntza, Europear Batasunean" izeneko sinposioan, Bartzelonan.
- Nafarroa Oinez 2004 dela eta, Lizarran egindako ekitaldiak.
- Azaroan, Gasteizen, VIII. Jagon Jardunaldiak.
- Abenduan, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza berriaren hautaketa.

Aretoen erabilera

Egoitzako eta Gasteizko ordezkartzaren aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita egon dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako.

Euskaltzaindiak berak antolatu dituen ekintzez gain, 2004. urtean 5.232 bisitari izan dira egoitzan.

Atal honen barruan, Bilbo Zaharra Forum elkarteak honako ekitaldiak antolatu ditu: Bernardo Atxagaren hitzaldia; Mikel Martinez-Patxo Telleriaren antzerki saioa: “Euskara sencilloaren Manifiesto”; Xabier Aierdiren hitzaldia; Arantza Urretabizkaia, Mariasun Landa, Santiago González, Ismael Manterola eta Harkaitz Kanoren hitzaldiak; Iñaki Lasaren ipuin kontaketa.



Egoitzan, Berango berbarik berba liburuaren aurkezpena, 2004-II-10ean.

Ezkerretik eskuinera: Arantza Aurrekoetxea, Jose Luis Lizundia, Miren Dobaran, Iñaki Gaminde eta Gotzon Lobera.

Horrez gain, honako elkarte hauek ere erabili dute aretoa: Berangoko Udalak, *Berango Berbarik berba* liburuaren aurkezpena egiteko; Lezamako Udalak eta Susa argitaletxeak, Mikel Zarateren 11 lanen bilduma web orrian aurkezteko; Unesco Etxeak, *Munduko Hizkuntzen Amarauna* izeneko web orria aurkezteko; Uztarri Elkarteak *Ongi etorri Marhaban* liburuaren aurkezpena egiteko; Atenea Hizkuntza Aplikatuaren Zentroak, hainbat liburuaren aurkezpenak egiteko; Topaguneak, “Kultur Errota” zirkuitoa zabaltzeko; Laminiturri elkarteak, *El Camino del Vascuence* liburuaren aurkezpenerako; Asapal elkarteak; Sabino Arana Fundazioak antolatuta Ines Pagolaren hitzaldirako “Arana Goiriren Hizberrigintza”, eta Renoko Center for Basque Studies-en liburu sorta-baten aurkezpenerako.

ORDEZKARITZAK

GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA

Ohi den bezala, zenbait batzorde Donostian bildu dira bertako azpiegituraz baliaturik: Gramatika, Literatura Ikerketa, Herri Literatura, Jagon saileko Corpus eta Sustapen. Onomastika batzordeak ere bilera bat egin du bertan eta Zuzendaritzak ere maiz egiten ditu bilerak ordezkariak honetan.

Urtarrilaren 30ean egin da Donostian ageriko bilkura eta omenezko hilberri-txosten hauek irakurri dira: Jose Mari Satrustegirena, Andres Iñigok irakurria eta, Rudolf de Rijk-ena Pello Salaburuk.

Urriaren 4an, Orion egin den “Kilometroak 04” ikastolen jaialdian Ana Toledo izan da Euskaltzaindiaren izenean.

Donostiako ordezkariak sinatu da, uztailearen 16an, Tolosako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmena* herri horretako udalbarrutiaren toponimia lana aztertzeke.

Euskaltzaindiaren barne-historiaz

Piarres Xarritonen zuzendaritzapean Arantzadi-Broussain gutuneria *Euskeran* argitaratzeko prestatu da. Lan horretan Marisa Goikoetxeak, ordezkariak honetako bulegariak ere, lagundu du.

ARABAKO ORDEZKARITZA

Erakundearen azpiegiturari dagozkion eginkizunez kanpo, azpimarratu behar da Gasteizko Udalarekin sinatutako *Hitzarmenari* esker bulego honetan diharduen Toponimia lantaldea eta horren inguruan sortu den lana. Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzutik, hiriburuko Udaletik, beste herri batzuetatik eta banakako ikerlarien aldetik etorritako hainbat kontsultari erantzun zaizkie.

Iaz hasitako lanarekin jarraituz, harreman ugari izan dira Gasteizko Udalarekin, kon-tuan hartuta azken urteotan hiri hau asko zabaldu dela eta auzo berriak sortu direla, batez ere *Zabalzana* poligonoak hartzen duen eremuan. Horregatik eskari ugari etorri dira Hirigintza Sailetik, hiriko eremu ezberdinetako toponimoak aztertu eta normalizatzeko sor-tuko diren kaleei izen egokiak jarri ahal izateko. Auzo eta poligono hauetako toponimoak aztertu dira eta erantzuna bidali:

- *Salburuko* kale berriak
- *Armentiako* toponimo berriak
- *Ehariko* kale berriak
- *Lakuako* 9. eta 12. poligonoetako toponimoak
- *Jundiz* poligonoko kaleak
- *Abetxukoko* toponimoak
- Beste kale batzuk.
- *Alto de las Neveras* izenari buruzko irizpena.

Beste kontsulta batzuk:

- RTVEtik: *Castilla* izeneko euskal ordainaz: *Castilla La Mancha* eta *Castilla-León*.
- “Judimendi, Oreitiasolo, Mendizorrotza eta besteren idazkera eta ebakera zuzenaz” deritzon txostena prestatu eta bidali da lurralde honetako Administrazioetara, komunikabideetara eta Inmobiliaria agentzia guztietara.
- Sindiko herritarren defendatzaileak, Gasteizko Alde Zaharreko 10 kale izeni buruz egin zuen galdera eta, Onomastika batzordeak onetsi ondoren, 11 iradokizun dituen txosten batez erantzun zaio: “Gasteizko kale-izendegiaz Sindiko Herritarren Defendatzailearen galderari Euskaltzaindiaren erantzuna”. Ondoren Sindikoak, kale horien izenak modu egokian jar daitezzen “Gomendio Orokorra” ebatzi du. Material hau, Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzura, Gasteiz Udaleko Euskara Zerbitzura, Kultura eta Hirigintza Saitetara, hiriko Alkatearengana eta aipatutako kaleei dagozkien herri-batzordeetako buruei eta hainbat elkarteri ere eman zaie.
- *Corazonistas* ikastetxeak bere lehen mendeurrena Gasteizen ospatu nahi duela eta, izen horren euskal ordaina eta egitarauaren itzulpena eman zaizkie.
- Oiongo Udalaren eskaerari erantzunez *Montaña Alavesa/Cuadrilla de la Montaña Alavesa* kaleen izenaz irizpena eman da.
- *Peñacerrada/Urizarra* herri-batzordeak eskatuta, herri horretako 12 kaleen euskal izenak igorri zaizkio.
- *Asociación Vasca de Naturópatas ejercientes* elkarterko buruak eskaturik, izenaren euskal ordaina eman zaio.

Raimundo Olabideri omenaldia

Raimundo Olabide Ikastolarekin batera, irailaren 3an, euskaltzain arabarrari egin dio Euskaltzaindiak omenaldia. Ordezkaritza honetatik eta ikastolatik bertatik antolatu dira ekitaldiak.

Ordezkaritzako bulegoak

Arabako Foru Aldundiak, San Antonio kalean dituen bulegoak utzi beharrean dagoela adierazi dio Euskaltzaindiari. Hori dela eta, Henrike Knörr ordezkariak harreman ugari izan ditu Foru Aldundiko Kultura Diputatuarekin, Hirigintza Diputatuarekin, Gasteizko Alkatearekin eta Fundación Santa Maria elkartearekin.

VIII. Jagon Jardunaldiak

Gasteizko ordezkartzan egin dira “Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian” izeneko jardunaldiak azaroaren 26an. Jardunaldi hauen antolaketa lanetan parte hartu du ordezkartzak.

Bisitak

Lurralde honetako 10 ikastetxe, institutu eta euskaltegitako ikasle taldeek bisitatu dute Euskaltzaindiaren ordezkartza hau, Akademiaren historia eta oraingo jardueren berri jasotzeko.

Ordezkapenak

Arabako ordezkariak herrialde honetan egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I. atalean azaltzen den bezala. Horrez gain, hiriko Alkateak deiturik, Gasteiz Hiriko Plan Estrategikoa deritzon proiektuaren barruan egindako bileretan ere parte hartu du Euskaltzaindiaren izenean.

NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Ordezkaritza honetan Akademiaren azpiegiturak eskatzen dituen lanez gain, 2004. urte honetan honako hauek azpimarra daitezke:

OCR sistemaren bidez egindako lanak

Dokumentuak automatikoki ezagutzeko OCR deritzon sistema honen bidez, honako lan hauek egin dira aurtien:

- Ines Pagola paratzen ari den *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri* lana OCR-tik pasatu da ordezkari honetan, eta behar diren zuzenketak egin dira Argitalpen Zerbitzurako.
- *Albiste Orriaren* 1-18 bitarteko zenbakiak pasatu dira, guztira 70 orrialdeko 'dokumentua' sortuz.

Ordezkapenak

- Urtarrilean, *Nabarralde* aldizkariak, "Nafarroa mendez mende" egindako aurkezpenean Andres Iñigo ordezkaria izan da.
- *Larreko* sariaren 2004ko edizioaren bozketara joan da Euskaltzaindiaren izenean ordezkaria, *Euskalerra* Irratiak hala eskaturik.
- Euskara Kultur Elkargoak antolatutako *Habla en cristiano* erakusketaren inauguraziora joan da ordezkari jauna.
- Eusko Ikaskuntzak 2003ko *Manuel Lekuona* saria eman dio Jesus Atxa Agirre jaunari. Ekitaldian Andres Iñigo izan da.
- Nafarroako Gobernuaren *Fonoteka eta Euskara Nafarroan* izeneko aurkezpenean, Andres Iñigo izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Lizarran ematen den *Manuel Irujo* sari-banaketa ekitaldian, Andres Iñigo izan da.
- Udako Euskal Unibertsitatearen sarrera ekitaldian, Andres Iñigo izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- *Nafarroa Oinez 2004 dela eta*, *Lizarra gurea* jaialdian A. Iñigok ordezkatu du Euskaltzaindia.

Bestelako lanak

- J. M. Satrustegiren artikulu guztiak informatizatu dira, *Principe de Viana* aldizkarietik hartuta (1967tik-1973ra). Hauetako batzuk *Nafarroa Oinez 2005* ekitaldien barruan argitaratuko dira eta, besteak, Nafarroako Gobernuarekin Euskaltzaindiak duen *Hitzarmenaren* arabera jasoko dira *Mendaur* bildumako lehen zenbakian.
- Arruazuko Udalarik ordezkari honetatik lagundu zaio, J. M. Satrustegiren omenez egindako ekitaldiaren antolaketa lanetan.
- *Nafarroa Oinez dela eta*, Euskaltzaindiak Lizarran ospatu du hileko batzarra eta azpiegitura eskaini da ordezkarietatik.
- Miranda Argan, 2003an, *Bartolomé de Carranza*-ren V. Mendeurrena ospatzeko ageriko bilkura egin zen. Ekitaldi hartako agiriak jasotzen dituzten *Euskera* agerkiaren *separaten* banaketa egin da.
- *Euskera 2003*, 2 agerkiari bidali zaie Irunberriko zenbait adituri, *Nafarroa Oinez 2003ko* ekitaldiak ospatu baitziren bertan.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoan izan da ordezkaria, 2004-05 ikasturtearen irekiera-ekitaldian.
- Euskalkien lantaldeak bilera egin du Nafarroako ordezkarietan eta behar izan duen azpiegitura eman zaio.

BAIONAKO ORDEZKARITZA

Bilkurak

Urtean zehar hilero egiten dira ordezkaritza honetan kudeaketa-bilerak. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Beñat Oihartzabal *Iker* sailburuak, Piarres Charritton ordezkariak eta Annie Etxeberri ordezkaritzako langileak parte hartu dute. Horrez gain, honako ekintza hauek ere burutu dira ordezkaritzatik:

- Otsailaren 9an, Hizkuntz Atlasaren batzordeak bilkura egin du Baionan.
- Apirilaren 13an, Frantziako Estatuko Elkarte-legearen arabera bulegoan egin da urteko bilera nagusia, bertako euskaltzain oso eta urgazleek parte hartu dutelarik.
- Maiatzaren 12an, Baionako ordezkaritzan D Mailako Hizkuntza Gaitasun Agiria prestatzeko bilkura egin da.



Haltsun, Maurice Harrieten jaiotetxean *oroitarria* agerian jartzen, 2004-VI-24an.

- Ordezkaritzatik azpiegitura eskaini zaie *Maurice Harriet*-en omenez egindako ekitaldi eta bilkurei:
 - Ekainaren 24an, zuzendaritza bildu da Baionan eta ondoren Maurice Harrieten omenezko jardueretan izan dira Haltsun. Besteak beste, herriko eskolari *Maurice Harriet* izena jarri dioten ekitaldian Joseph Maia eskolako zuzendaria, Maite Iratzoki eskola pribatu elebidunen zuzendaria eta Piarres Charritton mintzatu dira Harrieten bizitza eta jarduera gorai patuz. Ondoren, *Etxeberria* omenduaren sortetxean Euskaltzaindiaren *oroitarria* agerian jarri du Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Honela dio *oroitarriak*: “Etxe honetan sortu, bizi eta hil izan den

Maurice Harriet (1814-1904) euskaltzale handiari. Euskaltzaindiak 2004-06-24". Azkenik, ageriko bilkura egin da Larresoroko *Pelerenea* liburutegian.

– Ekainaren 25ean osoko bilkura egin da Larresoron.

- Uztailaren 13an, Izabako auzapezaren gonbitari ihardetsiz J. Haritschelhar euskaltzainburua izan da San Marti Harrian, Erronkari eta Baretouseko ibarrek egin ohi duten bilkuran. Aipatutako bilkura Erdi Arotik hona urtero egiten dute bi aldeko artzainek.

Ekintzak:

- Apirilaren 12an, Sarako *Euskal Idazleen Biltzarrean* eta inguruko ekitaldietan izan dira Piarres Charritton eta Annie Etxeberri.
- Maiatzaren 17an sinatu da Euskaltzaindia eta Akitaniako Kontseiluaren arteko 2004ko *Hitzarmena*, dagokion atalean azaltzen den arabera.
- Irailaren 18an Euskaltzainburuak eta Bernadeta Soulek Komertzio Ganberan aurkeztu diete *Maîtrise d'Ouvrage Public*-eko buruei Onomastika taldeak daraman lana, *Institut Géographique Nationale*kin batera.

Harremanak

Martxoaren 30ean, Ipar Euskal Herriko hautetsien biltzarburu *Lamassoure* jaunari txosten bat igorri dio Euskaltzainburuak, *Sarkozy* barne ministroari helaraz diezaion. Aipatutako txostenean Akademiaren jarduerak eta egoera azaltzen dira.

D Mailako Hizkuntza Gaitasun Agiria

Agiri hau eskuratzeko, ekainaren 5ean eta 19an egin dira lehen txandako probak eta, urriaren 9an eta 23an, udazkenekoak. Denetara, aurkeztu direnetatik 72 lagunek gainditu dituzte azterketak.

Diru-laguntzak

Urtean zehar, hainbat enpresak eman diote diru-laguntza Euskaltzaindiari. Hauek izan dira: Aiherrako *Eskulanak*, *Geroa*, *Segi*, *Ticem*; Hendaiako *Transports Salaberry* eta *Sokoa Sozietatea*; Irisarriko *Etchart lantegia*. Horiez gainera, 24 udalek ere diruz lagundu dute Euskaltzaindia.



III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

Azkue Bibliotekaren baitan bi alderdi bereizten dira: alde batetik zerbitzua, mota guztietako dokumentuak eskuratu, antolatu eta ikerleen eskura jarritz, eta bestetik batzordea, zeinaren eginkizuna baita lan horiek zehaztea eta eskaintzea.

Funtsak

Euskaltzaindiko biblioteka honetan nagusiki gordetzen diren funtsak hauek dira:

- Biblioteka eta Hemeroteka: 65.000 dokumentu. Ondare aipagarrienak hauek dira: R. M. Azkue, euskaltzainburuaren biblioteka, J. C. Guerra, Jon Bilbao, Jokin Zaitegi, Odon Apraiz eta Antonio Tovar.
- Artxibo materialak, bereziki aipagarriak: R. M. Azkue, P. Broussain, J. C. Guerra, O. Apraiz, J. Zaitegi, A. Ibinagabeitia, N. Tauer, J. Etxaide eta sermoi bildumak.
- Erakundearen artxibo administratiboa, bi arlotan banatua: historikoa (1970 arte) eta gaur egungoa.
- Fonoteka, bereziki aipagarriak: Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko bilduma (EHHA), bizkaieraren bilduma (IRALE-ren emaitza), 1980ko hamarkadako Bertsolaritza Txapelketak, R. Trebitschen bilduma.

Ondarea, neurri handi baten, dohaintzaz edo trukezko harremanez aberastu da. Aurten azpimarratzekoa da Bonifazio Etxegarai euskaltzainaren toponomastikari buruzko fitxategia eskuratu dela, Carmen Fraile haren alargunaren dohaintzaz. Pierre Lhanderen artxiboa eskuratzeko lehen urratsak eman dira: *Abertzaletasunaren Agiritegian* euskaltzain honen dokumentuak arakatzeko gestioak egin dira, Sabino Arana Fundazioaren bitartez.

Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK)

Aurtengo lan garrantzitsuena katalogo osoa birpasatzea izan da, eta behin betiko onartu diren katalogazio-erregeletan izandako azken aldaketak aplikatzea. Ondorioz, orain dela hamar bat urte zabaldu zen fase bat bukatu da: Azkue Bibliotekaren *Katalogoa* osorik euskaraz dago, Azkue Biblioteka batzordeak berak idatzitako eta onartutako erregelen arabera.

Urtean zehar sartutako dokumentu guztiak kontuan harturik, hauek dira urte amaierako kopuruak:

Aldizkariak:	1.947
Liburu modernoak (1820tik aurrera)	40.322
Antzinakoak (1820 arte)	1.630
Analitikak (Erakundearen argitalpenen hustuketa)	6.991
Bestelakoak (ikus-entzunezko materialak, musika inp.)	187
Beraz, hau da erregistro-kopuru osoa:	51.077

Dokumentazio eta artxibo zerbitzua

Erabiltzaile kopurua: 734
Eskaera bibliografiko arruntak: 800

Erreprografia zerbitzua: 14.900

Dokumentazio eta idatzizko kontsultak: 229


Eskaera batzuk banako ikerlariak eginikoak dira eta beste batzuk erakunde, elkarte edo enpresek. Azpimarratzekoa da gero eta galdera gehiago iristen direla internet bidez. Hauexek dira idatzizko kontsulta bereziak egin dituzten batzuk: Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zerbitzua eta Urazandi egitasmoa, EITB, EHU, UPNA, UEU, HABE, Koldo Mitxelena Kulturunea, Bilboko Bidebarrieta Biblioteka, BBK, Ikeder, udalak, zenbait argitaletxe, CINDOC, Institut d'Estudis Catalans, *El País* egunkaria, Argentinako Fundación Juan de Garay.

Eskurapenak

Liburu erosketak	26.737 euro
Digitalizazio egitasmoak	41.161 euro
Tresneria	2.267 euro

Azkue Bibliotekaren Artxiboa

- *Andima Ibinagabeitiaren* artxiboa: Artxiboaren katalogazioa uztailaren bukaeran burutu da. Aipatzekoa da, baita ere, Gotzon Egaña jaunak A. Ibinagabeitiaren artxiboa aberasteko zenbait gutun eman dizkiola Euskaltzaindiari, dohaintza gisa; guztira 726 dossierrek osatzen dute artxibo honen katalogoa
- *Antonio Tovar-en* artxiboa: Antonio Tovar-en gutundegiaren katalogazioa eta interneten eskegiteko prestakuntza lanak burutu dira. Dokumentuek, guztira, 85 dossier osatzen dituzte.



Donostian, Euskaltzaindiaren brontzezko domina Gotzon Egañari ematen, 2004-IV-29an.

Ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Xabier Kintana eta Gotzon Egaña.

- *Jose Mari Satrustegiren* artxiboa: hitzarmena sinatu du Euskaltzaindiak Jose Mari Satrustegiren oinordekoekin, haren artxiboa katalogatu eta digitalizatzeko, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaz. *Hitzarmena* uztailean sinatu da eta aipatutako artxiboa eskuratu ondoren, irailean katalogatze lanari ekin zaio.

Dagerre digitalizazio egitasmoa

Eskari arruntei erantzunez 203 argazki digitalizatu dira. Honez gain hauek dira burututako egitasmo nagusiak:

- *Euskera* agerkariaren bigarren zatiaren (1980-2002) digitalizatzea burutu da.
- *Lacombe* ondarearen digitalizazioari ekin zaio berriz, eta beste 80 liburu digitalizatu dira.
- Mikrofilmak eta mikrofitxak. Aurten ekin zaio mikrofilmatutako artxibo-materialak formatu digitalera pasatzeari, ondare hauek digitalizatuz: *Juan Carlos Guerra*, *Louis Lucien Bonaparte*, *Anton Abadia* eta hainbat sermoi eta liburu solte.

III.2.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Katalogazioa zuzendu eta osatu

Jakina denez, Euskaltzaindiko Bibliotekako katalogatzea da euskara hutsean burutzen den lehenengo katalogo bibliografikoa. Horrek, irizpideak sistematikoki katalogazio-erregelatan biltzera eraman du Euskaltzaindia, 2002 bitartean hogeita bat katalogazio-erregela onartu zirelarik.

Urteko lan nagusia, katalogazio-erregelak berraztertzeari jarraipena ematea izan da. Ildo horretan, zortzi katalogazio-erregela berrikusi eta onartu dira.

- *Jentilizioen erabilerarekin lotutako zenbait arazori buruzko katalogazio-erregela* (7. erregela).
- *Sarrera eta azpisarrera geografikoei buruzko katalogazio-erregela* (8. erregela).
- *“Euskal Herria” eta “Euskadi” terminoen erabileraren katalogazio-erregela* (9. erregela).
- *Diputazio eta Batzar Nagusien sarrera nagusiak egiteko erregela* (10. erregela).
- *“Printze subirano” eta antzeko sarrera nagusia egiteko erregela* (11. erregela).
- *Zenbait banako egile bereziren sarrera nagusiei buruzko katalogazio-erregela* (12. erregelaren 4, 5, 6 eta 7. atalak).
- *Banako egileen sarrera nagusia egiteko erregela* (13. erregela).
- *Egile korporatiboiei sarrera nagusia egiteko katalogazio erregela* (14. erregela).

Berrikusketa honen helburua, irizpide orekatu eta argiakoak ematea izan da.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

Aurten ere, aurreko urteetatik datorren lanari jarraipena emanez, zenbait bilera eta lanetan parte hartzen segitu da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin elkar lanean, besteak beste, Espainiako Kultura Ministerioaren *Reglas de Catalogación* delakoien itzulpenean.

III.3. ARGITALPENAK

III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen hauek bideratu dira 2004. urtean:

1. *Euskera*, 2003, 2

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: “Manuel Intxauspereen omenaldia, Bartolomé de Carranza-ren V. Mendeurrena, Nafarroa Oinez-03, Sabino Arana: kultura eta euskara jardunaldia, Hitzarmenak (Nafarroako Gobernuarekikoa, EiTBrekikoa, Iruñeko Udalarekikoa) eta Resu Orbe eta Lutxi Alberdiri zilarrezko domina ematea, 25 urte Euskaltzaindian lanean aritu ondoren”. 748 orrialde.

2. *Euskera*, 2004, 1

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: “Mikel Zarateren heriotzaren 25. urteurrena, Nafarroako euskalkiei buruzko jardunaldiak, Euskaltzaindiaren adierazpena eta araua Euskalkien erabileraz, *Euskal Herria* izenari buruzko araua eta adierazpena, *Garapen iraunkorra*-ri buruzko irizpena, EUDELen eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmena”. 592 orrialde.

3. *Euskaltzaindiaren ARAUAK*

Hauek dira, 2004an zehar, 3. karpetan, XXIV. eta XXV. sortetan argitaratu diren hizkuntza-arauak:

131. Hiztegi Batua: *arriskatu - askatu*
132. Hiztegi Batua: *askatzaile - atomatu*
133. Nafarroa Behereko herri izendegia (eta III)
134. Hiztegi Batua: *atomika - aurpegi*
135. Hiztegi Batua: *aurpegiera - azalkeria*
136. Hiztegi Batua: *azalkizun - azuzena*
137. Adierazpena euskalkien erabileraz
138. Hiztegi Batua: *b - berriz*
139. *Euskal Herria* izena

4. *Euskaltzaindiaren 2003ko Oroitidazkia*

Liburu honetan, Akademiak urte horretan buruturiko ekintza eta lanen zehaztasunak ematen dira. Hiru hizkuntzatan kaleratzen den liburu horrek 378 orrialde ditu.

5. *Eusqueraren berri onac*

Agustin Kardaberazen liburuaren faksimilea eta edizio kritikoa, Patxi Altunak eta Esther Zulaikak paratua. Euskararen Lekukoak bildumako 23. zenbakia da. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hernaniko Udalak, Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak babestua. 128 orrialde.

6. *La España Metafísica (lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936))*

Prudencio García Isastik egina. Iker bildumako 16. zenbakia. Euskal Herriko Unibertsitateak babesturiko argitalpena. 618 orrialde.

7. *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*

Jose Luis Erdozia Mauleonek egina eta Nafarroako Gobernuak babestua. 416 orrialde.

8. *ERLISIONEA: Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak...*

J. P. Arbelbideren liburuaren faksimilea, P. Xarritton euskaltzainaren sarrerarekin eta egiari buruzko eranskinarekin. Nafarroako Gobernuak babesturiko argitalpena. 506 orrialde.

9. *Euskaltzaindiaren aurkitegia eta organigrama*

Batetik, euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleen helbideak jasotzen ditu eta, bestetik, batzordeetako kideen zerrendak, Akademiaren egoitza eta ordezkartzen helbideekin batera. 40 orrialdeko liburuxka.

10. *Agustin Kardaberaz: Hirugarren Mendeurrena (1703-2003)*

Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak 2003an antolatu zituzten Jardunaldietan irakurri ziren hitzaldiak eta txostenak biltzen dira Deustuko Unibertsitateak argitaratu duen liburu honetan. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hernaniko Udalaren diru-laguntzari esker kaleratu da liburukia. 256 orrialde.

11. *Nafarroa Behereko herri izendegia*

Euskera, 2003, 2 zenbakiaren 'separata' moduan kaleratu du Euskaltzaindiak *Nafarroa Behereko herri izendegia*, Onomastika batzordeko bi kideren sarrerekin. 34 orrialde.

12. *Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia Literatura sarien historia: 1958-2003.*

Bilbao Bizkaia Kutxaren babesari esker kaleratu da liburu hau, bi erakunde hauek elkarrekin 45 urtean zehar antolatu dituzten sarien historia laburra jasotzen duena. 192 orrialde.



Egoitzan, Bilbao Bizkaia Kutxa – Euskaltzaindia Literatura sarien historia: 1958-2003 liburuaren aurkezpena, 2004-XII-2an.

Ezkerretik eskuinera: Gorka Martinez, Jose Ramon Bilbao, Jean Haritschelhar eta Aitor Arana.

13. *Narrazioak eta olerkiak 2003*

2003. urtean *Azkue* saria eman zitzaien irabazleen lanak argitaratu dira 124 orrialdeko liburu honetan.

14. *Manikien galeria*

Mikel Zubeldia. BBK - Euskaltzaindia: 2003ko *Txomin Agirre Eleberri* saria. 168 orrialde.

15. *Ama hor al zaude?*

Pablo Barrio. BBK - Euskaltzaindia: 2003ko *Toribio Alzaga Antzerki* saria. 128 orrialde.

16. *Oihan nabarra*

Luis Garde Iriarte. BBK - Euskaltzaindia: 2003ko *Felipe Arrese Beitia Olerki* saria. 72 orrialde.

17. *Harrizko pareta erdi-urratuak*

Patziku Perurena. BBK - Euskaltzaindia: 2003ko *Mikel Zarate Saiakera* saria. 192 orrialde.

III.3.2. ARGITALPEN SALMENTA ZERBITZUA

Euskaltzaindiak argitalpenen hedapen-salmenta banatzaileen bitartez egiten du, gehienbat. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du eta, ondorioz, argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa izaten da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak, 2004. urte bukaeran 1.961 izan dira, eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 311. Gainerako argitalpenei dagokienez, liburu-dendei 81 ale saldu zaizkie, banatzaileei 1.340 eta gizabanako eta erakunde desberdinei 931.

Ohiko salmentekin eta Arauen zein *Euskera* agerkariaren harpidetzekin lortutako diru-emaizta 85.200 eurokoa izan da.

Merkataritza ikuspegia

Liburu-dendei eginiko salmentak zertxobait igo dira, eta gizabanakoei eginikoak ere gora egin dute nabarmen.

Azpirarratzekoa da *web* gunetik jasotako eskariek berriro izan duten gorakada, % 60tik % 72ra igoaz.

Argitalpenik salduenak, *Euskera 2000, 2* (Hiztegi Batua) eta *Euskal Izendegia* izan dira, eta trukezko harremanetan 650 ale banatu dira.

Azokak

Irailaren 29tik urriaren 2ra, Euskaltzaindiaren Argitalpen Zerbitzua Bartzelonan izan da, *Liber 2004* (Feria del Libro Iberoamericano) azokan, *Institut d'Estudis Catalans* eta *Consello de Cultura Galegarekin* batera. Aurten ere esperientzia hau positiboa izan da, lanen zabalkunderako eta oro har argitalpenen mundua sakonago ezagutzeko. Bartzelonan izanik, *Institut d'Estudis Catalans*-en egoitza bisitatu da, haien egitasmoen berri izanez eta iaz hasi zen koordinazio lana sakonduz.

Abenduan, ohiturari jarraiki, Durangon egin da *Euskal Liburu eta Disko Azokaren* 39. edizioa, 4tik 8ra. Beti legez bertan izan da Euskaltzaindia, azken argitalpenak aurkeztu eta bisitariei behar adinako informazio eta argibideak emanez. Aurten, informatikariarekin batera eginiko proiektio digitala emititu da saltokian; proiektio honek Euskaltzaindiaren lehena, oraina eta geroa biltzen ditu.

Saran izaten den *Euskal Idazleen Biltzarrean* ere izan da Akademia. Liburu azoka ere baden biltzar hau, geroz eta gehiago Iparraldeko euskaltzaleentzat erreferentzia bilakatzen ari da.

Euskal Herrian egin diren beste zenbait liburu eta disko azokatarata, zuzenean joan ez arren, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez eraman dira, alor honetan aritzen den Abarka enpresarekin eginiko kudeaketan ondorioz.

Gordailua

Datorren urteari begira, gordailuan burutuko den birmoldaketa sakonaren lehenengo urratsak eman dira. Proiektua zehaztu da. Honetaz gain, Euskaltzaindiak Bilbo ondoko *Etxebarri* herrian duen gordailuak bi xede nagusi izan ditu, hots:

1. Argitalpenak gordetzea:

- Salgai dauden argitalpenen gordailu izatea, ohi bezala.
- 2004. urtean zehar, salgai dauden argitalpen guztien inbentario zehatza egin da, eta argitalpenak kokatzen eta berrantolatzen jarraitu da.

2. Artxiboa:

- Barne-artxiboa: Euskaltzaindiak, urteetan zehar bildu, landu eta ekoiztu duen dokumentazio sailkatua gordetzeko erabiltzen dena.
- Kanpo-artxiboa: Euskaltzaindiak izandako harremanak, kanpoko erakunde, elkarte, talde eta abarri erosiz, trukatzuz zein dohainik jasoz, bildu diren material sailkatuen gordailua, hots, liburuak, aldizkariak, egunkariak, posterrak eta abar, gordetzeko erabilia.

IV. Aurrekontua

GALDU-IRABAZIEN KONTUA

	ZORRA	2004
A) GASTUAK		
1. Bideango produktu eta produktu bukatuen izakinen gutxitzea		
2. Hornikuntzak		252,94
a) Salgaien kontsumoa		252,94
b) Lehengaien eta bestelako gai kontsumigarrien kontsumoa		-
c) Kanpoko beste zenbait gastu		-
3. Pertsonal gastuak		1.004.907,43
a) Soldatak, alokairuak eta antzekoak		795.166,25
b) Gizarte-zamak		209.741,18
4. Ibilgetuaren amortizaziorako zuzkidurak		48.197,35
5. Trafiko-horniduren aldaketak		3.553,64
a) Izakinen hornidura-aldaketa		-
b) Kreditu kobraezinengatiko galera eta hornidura-aldaketa		3.553,64
c) Bestelako trafiko-horniduren aldaketa		-
6. Ustiapeneko beste zenbait gastu		1.583.125,88
a) Kanpoko zerbitzuak		1.580.377,97
b) Zergak		1.657,60
c) Gestio arrunteko beste gastu batzuk		1.090,31
d) Errebertsio fondorako zuzkidura		-
I. USTIAPENeko MOZKINAK		1.152.609,23
7. Finantza gastuak eta antzekoak		511,93
a) Taldeko enpresekiko zorrenak		-
b) Enpresa elkartuekiko zorrenak		-
c) Hirugarrenetikiko zorrenak eta antzeko gastuak		511,93
d) Finantza inbertsioen galerak		-
8. Finantza inbertsioen horniduraren aldaketa		-
9. Ganbio diferentzia negatiboak		-
II. EMAITZA FINANTZARIO POSITIBOAK		-
III. JARDUERA ARRUNTEKO MOZKINAK		1.152.148,79
10. Ibilgetu material, inmaterial eta kontrol-karterako horniduren aldaketak		-
11. Ibilgetu material, inmaterial eta kontrol-karterako galerak		-
12. Akzio eta obligazio propioen eragiketengatiko galerak		-
13. Aparteko gastuak		42,18
14. Aurreko ekitaldietako gastu eta galerak		255.480,42
IV. APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK		68.380,29
V. ZERGA AURREKO MOZKINAK		1.220.529,08
15. Sozietateen gaineko zerga		-
16. Bestelako zergak		-
VI. EKITALDIKO EMAITZA (MOZKINAK)		1.220.529,08

	HARTZEKOA	2004
B) SARRERAK		
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia		80.342,52
a) Salmentak		83.658,82
b) Zerbitzu-prestazioak		282,00
c) Salmentei buruzko <i>rappel</i> eta itzulketak		- 3.598,30
2. Bideango produktuen eta produktu bukatuen izakinen gehitzea		-
3. Enpresak ibilgeturako egindako lanak		6.653,05
4. Ustiapeneko beste sarrera batzuk		3.705.650,90
a) Sarrera osagarriak eta gestio arrunteko beste batzuk		101.485,65
b) Subentzioak		3.604.165,25
c) Arrisku eta gastuetarako gehiegizko hornidurak		-
I. USTIAPENENKO GALERAK		-
5. Kapital partaidetzen sarrerak		-
a) Taldeko enpresetakoak		-
b) Enpresa elkartuetakoak		-
c) Kanpoko enpresetakoak		-
6. Bestelako balore negoziagarri eta aktibo ibilgetuaren kreditu- engatiko sarrerak		-
a) Taldeko enpresetakoak		-
b) Enpresa elkartuetakoak		-
c) Kanpoko enpresetakoak		-
7. Bestelako interesak eta antzeko sarrerak		51,49
a) Taldeko enpresetakoak		-
b) Enpresa elkartuetakoak		-
c) Bestelako interesak		51,49
d) Finantza inbertsioen mozkinak		-
8. Ganbio diferentzia positiboak		-
II. EMAITZA FINANTZARIO NEGATIBOAK		460,44
III. JARDUERA ARRUNTEKO GALERAK		-
9. Ibilgetu material, inmaterial eta kontrol-karteraren inorengana- tzeagatiko mozkinak		-
10. Akzio eta obligazio propioen eragiketengatiko mozkinak		-
11. Ekitaldiko emaitzari esleitutako kapital subentzioak		60.262,33
12. Aparteko sarrerak		27,50
13. Aurreko ekitaldietako sarrera eta mozkinak		263.613,06
IV. APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK		-
V. ZERGA AURREKO GALERAK		-
VI. EKITALDIKO EMAITZA (GALERAK)		-

V. Herri Administrazio eta Erakundeak

V. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

V. 1. EUSKO JAURLARITZA ETA HIRU DIPUTAZIOAK

2004ko Eranskina sinatzea

Azaroaren 16an sinatu da Euskaltzaindiaren egoitzan, Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenaren aurtengo *protokoloa*. Akademiaren izenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu du eta Herri Aginteen izenean, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak, Belén Greaves Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Foru diputatuak, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Federico de Verastegui Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko Foru diputatuak.



Egoitzan, Eusko Jaurlaritza eta hiru aldundietakoak Hitzarmena sinatzen, 2004-XI-16an. **Ezkerretik eskuinera:** Belen Greaves, Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Jean Haritschelhar, Miren Azkarate eta Federico Verástegui.

Errendapen txostenak

Herri Aginteekin sinatutako *Hitzarmenaren* arabera, egitasmo eta batzorde akademi-koen lanen errendapen-txostenak bidaltzen dizkie Euskaltzaindiak Herri Aginteei. 2004.

urteari dagokionez, errendapen txosten hauek igorri zaizkie EAeko Herri Administrazioei: martxoan, 2003ko bigarren urte-erdikoak eta, azaroan, 2004ko lehen urte-erdikoak. Txosten horietan, batzorde, egitasmo eta lantalde hauen lana jaso da: *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Hiztegi Batuko* lantaldea, UZEI: *Hiztegi Batua* eta *EEBS*, Gramatika batzordea, Dialektologia batzordea (Atlasa), Onomastika batzordea, Herri Literatura azpibatzaordea, Literatura Ikerketa azpibatzaordea, Euskara Batuko batzordea, *Jagoneko Corpus* batzordea, *Jagoneko Sustapen* batzordea, Azkue Biblioteka eta Argitalpen batzordeak.

Jarraipen Batzordearen bilerak

Aurten, Euskaltzaindiak Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Aginteekin sinatua duen *Hitzarmeneko Jarraipen Batzordea* hiru aldiz bildu da. Herri Aginteen aldetik, hauek izan dira bilera horietan: Patxi Goenaga eta Lorea Bilbao, Hizkuntza Politika Sailordetzatik; Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldunditik; Imanol Agote, Gipuzkoako Foru Aldunditik; Pedro Ignacio Gonzalo-Bilbao, Arabako Foru Aldunditik. Euskaltzaindiaren izenean Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Beñat Oihartzabal *Iker* sailburua eta, Andres Urrutia, *Jagon* sailburua.

Bilerak egun hauetan egin dira: otsailaren 26an, uztailaren 5ean eta abenduaren 1ean, hirurok Eusko Jaurlaritzaren egoitzan.

Bilera horietako gai nagusiak hauek izan dira: lehenengo bileran, Batzorde teknikoak 2002. urteko lanei buruz egindako txostena eta 2004ko protokoloa aztertzea; bigarrean, Euskaltzaindiak 2003an egin zituen lanei buruz Batzorde Teknikoak prestatuturiko txostena, 2004ko Protokoloa eta Hitzarmen berria; eta hirugarren bileran, Hitzarmen berria.

Batzorde Teknikoaren bilerak

Urtarrilaren 28an bildu da Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Aginteekin Euskaltzaindiak duen Hitzarmenaren Batzorde Teknikoa, Donostian, Euskaltzaindiaren ordezkartzen. Herri Aginteen izenean, hauek izan dira: Koro Urkizu, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzakoa eta, Joseba Erkizia, Gipuzkoako Foru Aldundikoa; Euskaltzainditik, Pello Telleria idazkariordea izan da. Bileraren xede nagusia 2002ko errendapen-txostenak aztertzea izan bada ere, batzordeen gaur eguneko eginkizunez ere jardun da.

Joan Perez Lazarragaren eskuizkribuaren aurkezpena

Urtarrilaren 30ean, Donostian eginiko osoko bilkura aprobetxatuz, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldu nagusiak, Euskaltzaindiari aurkeztu dio Diputazioak erosi berri duen garrantzi handiko dokumentua, Juan Perez Lazarragaren eskuizkribua. Eskuizkribu hau Hegoaldeko euskarazko testu zaharrena da, Juan Perez Lazarraga Larrea dorreko jaunak idatzia, XVI. mendean. Euskaltzainei erakutsi ostean, otsailan, aurkezpen publikoa egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Foru Jauregian. Jean Haritschelhar joan da erakundearen izenean.

V.2. NAFARROAKO GOBERNUA


2004ko protokoloa

Otsailaren 20an sinatu da Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmenaren* aurtengo protokoloa. Akademiaren izenean, Jean Haritschelhar euskaltzain-

buruak sinatu du eta, Foru Gobernuaren izenean, Pedro Pegenaute Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak.

Akordioak zehazten duenez, hauek dira Euskaltzaindiak 2004. urtean zehar egin beharreko eginkizunak:

- Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA) egiteko bildu ziren Nafarroako 3 herritako (*Ezkurra, Suarbe eta Zugarramurdi*) grabazioak euskarritan paratu eta ematea.
- Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko lehen liburukirako, Nafarroari dagokion edukien argitalpen bereiztu eta banandua ahalbidetuko duen informatika programaren berritzea. Berritze horren bigarren eta azken zatia burutzea.
- Baztango Euskalkiaren Gramatikaren bigarren eta azken zatia gauzatzea.
- Jose Mari Satrustegi euskaltzainaren artxibategietako katalogazio eta digitalizazio lanari ekitea.
- Nafarroako euskalkien inguruko jardunaldiak prestatzea. Jardunaldi hauek ekainaren 16 eta 17an burutu dira, Uharten, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan, Zubiarte eraikinean. Gaia "Euskalkiak eta Komunikabideak" izan da.



Uharten, Euskalkiak eta Komunikabideak gaiari buruzko jardunaldian, 2004-VI-17an.

Ezkerretik eskuinera:
Iñaki Mundiñano,
Adoración Lopez Jurio eta
Pello Apezetxea.

- *Príncipe de Viana* aldizkarian argitaratutako Jose Mari Satrustegiren artikuluen bildumen argitalpena egitea.
- A eta D ereduetako hezkuntza *Curriculumei* buruzko txostena prestatzea.
- Euskaltzaindiak egiten dituen izaera orokorreko gainerako jarduerak, aurrekoen euskarri direnak.

Jarraipen Batzordearen bilerak

Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmeneko* Jarraipen Batzordea bi aldiz bildu da: otsailaren 20an eta abenduaren 9an. Bi bilerak Iruñean egin dira, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren egoitzan eta hauek parte hartu dute: Euskaltzaindiaren izenean, Jean Haritschelhar, Jose Luis Lizundia, Andres Urrutia eta Juanjo Zearretak; Gobernuarenean, Pedro Pegenaute, Julen Calvo eta Iñaki Ayesak.

Bilera horietako gai nagusiak hauek izan dira: 2004ko Protokoloa adostea, lehenengo bileran, eta 2004ko eginkizunen gauzatzeaz eta 2005. urterako eginkizunetako Batzorde Teknikoak prestatutako txostenak aztertzea, bigarreanean.

Batzorde Teknikoaren bilerak

Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmeneko* Batzorde Teknikoa hiru aldiz bildu da aurten. Nafarroako Gobernuaren izenean ordezkari hauek izan

dira: Adoración López Jurío, Mikel Arregi eta Iñaki Ayesa; Euskaltzainditik, Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria.

Bilera horietako gai nagusiak hauek izan dira: 2003. urtean egindako lanak entrega-tzea, 2004. urterako lanen proposamena, 2004. urtean zehar egin diren lanen jarraipena, "Euskalkiak eta komunikabideak" gaiaz egin diren jardunaldiak eta 2005. urterako lanen proposamena.


Bilerak ondoko egunetan egin dira: otsailaren 4an, Iruñean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren egoitzan; apirilaren 6an, Donostian, Euskaltzaindiaren ordezkartzan eta, irailaren 28an, Iruñean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren egoitzan.

V.3. ESTATU ADMINISTRAZIOA

Espainiako Administrazio Zentraleko Hezkuntza Ministerioaren Unibertsitate eta Ikerketarako Estatu Idazkaritzan dago ofizialki kokatua Euskaltzaindia. Hizkuntza Akademiarentzako aurrekontu orokor bat dauka Ministerioak, nondik gauzatzen den gure Akademiarentzako diru-laguntza, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako erakundeetako kide-ekin batera.

Gobernu Zentralaren Ordezkaria EAEn

Ekainaren 22an, Paulino Luesma Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako Gobernuak duen ordezkariarekin bildu dira Euskaltzaindiko ordezkariak: Jean Haritschelhar, Henrike Knörr, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia eta Juanjo Zearreta. Beste gai batzuren artean, *Europako Konstituzioa* euskarara itzultzeko prest dagoela adierazi du Euskaltzaindiak.



Iruñean, Gobernu Zentralaren ordezkartzan, 2004-XII-9an.

Ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Jean Haritschelhar, Vicente Ripa, Andres Urrutia eta Jose Luis Lizundia.

Gobernu Zentralaren Ordezkaría Nafarroan

Agintaldi berria gertatzen denean, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak, agintari izendatu berriei bisita egiteko ohitura du. Abenduaren 9an, Nafarroako Foru Erkidegoan Gobernu Zentralaren ordezkaria den Vicente Ripa jauna bisitatu du Euskaltzaindiak. Euskaltzainditik hauek izan dira: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Urrutia, *Jagon* sailburua eta Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria.

V.4. IPARRALDEKO HERRI AGINTEAK

Herri Aginteek 2000. urtean egindako Euskal Herrirako Berariazko *Hitzarmenean*, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion, eta, ondorioz, administrazio desberdinek beren laguntzak ematen dizkiote Euskaltzaindiari.

Frantziako Gobernua

Urriaren 19an, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak eta Pierre-André Durand, sub-prefektoak, Euskaltzaindiaren eta Frantziako Gobernuaren arteko *Lankidetzazko hitzarmena* sinatu dute. Urtero-urtero, Akademiak Estatuari bidaltzen dio urtean zehar egindako lanaren berri ematen duen errendapen-txostena.

Akitania

Maiatzaren 17an sinatu dute hitzarmena Euskaltzaindiak eta Akitania Herrialdeko Kontseiluak. Euskaltzaindiaren izenean, Jean Haritschelharrek sinatu du eta, Akitaniaren izenean, Alain Rousset presidenteak.

Pirinio Atlantikoak

Ekainaren 24an Euskaltzaindiaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorren arteko *Hitzarmena* sinatu da. Jean Jacques Lasserre jaunak –Kontseiluko presidenteak– eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu dute.

Frantziako Institutu Geografiko Nazionala

Baionan hitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiak eta Frantziako *L'Institut Geographique National*-ek. *Hitzarmen* horren xedea, Iparraldeko euskal toponimia zehaztea eta finkatzea da.

V.5. UDALAK

EUDEL

Otsailaren 27an, Euskaltzaindiak eta EUDELek *Hitzarmen* berria sinatu dute toki erakundeek laguntza teknikoa emateko, izen toponimikoen arloan. Hitzarmen honen xedeari jarraituz, bi erakundeek aholkularitza emango diete toki-entitateei, lekuri esanguratsuenen izen toponimikoen inguruan hartu beharreko erabakietan. EUDELen izenean, Karmelo Sainz de la Maza buruak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.

Hitzarmen honen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek laguntza eta aholkularitza eskatu ahal izango diote Euskaltzaindiari, beti ere Euskadiko Udalen Elkartearen bitar-



Egoitzan, EUDELekeko hitzarmena sinatzen, 2004-II-27an.

Ezkerretik eskuinera: Miren Dobaran, Karmelo Sainz de la Maza, Jean Haritschelhar eta Andres Iñigo.

tez. Euskaltzaindiaren bidez, laguntza teknikoa emango die EUDELeke udalei, auzo berri, etxebizitza, poligono, naturgune, parke, atseden-leku, zerbitzugune, katalogatutako udal mendi eta bestelakoen izen toponimikoei buruz. Era berean, udalek eskatuta, etengabe emango da plaza, pasealeku, kale eta bestelakoen izen toponimikoei buruzko zerbitzua.

Donostia

Xalbador bertsolaria kalean, Donostiako Udalak duen eraikuntza bat erabiltzen du Euskaltzaindiak, 2001etik, egitasmo akademikoetarako. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lantaldeak jardun du hor lanean.

Gasteiz

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatua du hitzarmena, zeinen bidez, hiriburu horretako ordezkartzan, udal-barruti osoaren herriz herriko toponimia ikertzen eta normalizatzen diharduen lantaldea –nagusiki– eta ordezkartzako herri zerbitzuak babesten dituen.

Akademiak, 2003ko ekainetik 2004ko uztaila bitartean egindako lanen errendapen txostena aurkeztu dio Udalarari. Hauek dira txosten horretan agertzen diren gai nagusiak:

- Euskaltzaindiak Gasteizen duen ordezkartzak eman dituen zerbitzuak.
- Gasteizko Toponimia lantaldearen lana.
- Kasuan kasuko zerbitzuak.
- Kontu-errendapena.

Iruñea

Ekainaren 16an, urte beteko iraupena duen hitzarmena sinatu dute Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak; Udalaren izenean, Ignacio Pérez Cabañas Kultura zinegotzi delegatuak eta, Euskaltzaindiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Hitzarmen horren helburuak honako hauek dira:

- Euskaltzaindia Iruñeko Udalari aholku emateko zereginetan aritu ahalko da, euskarekin zerikusirik duten hizkuntza gaietan.
- Euskaltzaindiak hiritarrek eskaturiko argibideak eta aholkuak oro eskaintzen jarraituko du, hala bere zerbitzu orokorretan nola Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkartzan.
- Kultura hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da, elkarlanean.
- Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio guztietatik sei ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere hitzarmenaren esparruari dagozkion gaietakoak baldin badira.

Tolosako Udala

Uztailaren 16an *Lankidetzeta-hitzarmena* sinatu dute Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak; Udalaren izenean Jokin Bildarratz alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Hitzarmen horren xedea hau da: "Tolosako Leku Izenak" deituriko lana sistematizatzea, azalpen-testuak lantzea, material grafikoa hautatzea eta make-tatzea.



Donostiako ordezkartzan, Tolosako Udalarekin hitzarmena sinatzen, 2004-VII-16an.
Ezkerretik eskuinera: Jokin Bildarratz eta Jean Haritschelhar.

“Tolosako Leku Izenak” izeneko lana toponimiari buruzko azterketa da eta Udalaren datu-base batean txertatuta dago. Sinatutako Hitzarmenaren arabera, Akademiak datu-basea hartu eta honako lanak egin beharko ditu: argitaratu beharreko materiala aukeratu, zerrenda egokiak definitu eta prestatu, bai eta material grafikoa, aipamen historikoen zerrenda eta azalpen testuak ere.

V.6. UNIBERTSITATEAK

V.6.1. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Urriaren 1ean, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak 2004. urteko eranskina sinatu dute. EHUren izenean, Juan Ignacio Pérez Iglesias errektoreak eta Akademiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Eranskin horretan zehazten den legez, *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri* Ines Pagola irakaslearen tesia, argitaratuko dute bi erakundeek.

V.6.2. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak *Hitzarmena* sinatua dute, 2003ko abendutik, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basean (*Inguma*) lankidetzan jarduteko.



Egoitzan, *Inguma* egitasmoaren aurkezpenean, 2004-V-11n.

Ezkerretik eskuinera: Gotzon Lobera, Henrike Knörr, Aitzpea Leizaola eta Karmele Artetxe.

Ekainean, hilabete hauetan egindako lana ekitaldi publiko baten bidez ezagutarazi da. Bertan, hauek hartu dute parte: Henrike Knörr, Euskaltzaindiko buruordeak; Gotzon Lobera,

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusiak; Aitzpea Leizaola, UEUko zuzendariak, eta Karmele Artetxe, *Inguma* datu-basearen dokumentazio arduradunak.

Aurkezpenean azaldu bezala, hitzarmenaren babesean lanean aritu dira bi erakundeak, UEU eta Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka, Akademiaren ahozko zein idatzizko dokumentuak *Inguma* datu-basean katalogatuz.

Inguma-n Euskaltzaindiaren ekoizpen zientifiko hauek katalogatu dira: argitalpen guztiak (1969tik 2003ra arte); *Euskera* agerkaria (1969tik 2003ra arte); eta ahozkoa (1983-2003); Euskaltzaindiak edo haren inguruan antolatutako hitzaldiak ere jaso dira.

V.6.3 DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

2001eko abenduaren 20an, Euskaltzaindiak eta Deustuko Unibertsitateak *Hitzarmena* sinatu zuten eta, beste zereginen artean, Kardaberaz III. mendeurreneko ekitaldia prestatzea zegokien bi erakundeei. Hitzarmen horren ondorioz, Aita Agustin Kardaberaz *Eusqueraren berri onac*, Patxi Altunak eta Esther Zulaikak prestatua, argitaratu da aurten. Liburu hau Euskaltzaindiaren *Euskararen lekukoak* bildumaren 23. liburukia da.

V.7. BAIONAKO IKER TALDEA

Euskaltzaindiak eta *Iker* taldeak lau urteko iraupena duen *Hitzarmena* sinatu zuten, 2001ean; beraz, hau da laugarren urtea.

Iker taldea hiru erakunde hauek osatzen dute:

- Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS)
- Bordeleko III. Unibertsitatea / Université Michel de Montaigne
- Université de Pau et des Pays de l'Adour

V.8. EUSKALTEL

2002. urtetik, *Euskaltel* enpresak eta Euskaltzaindiak *Hitzarmena* sinatua dute. Hitzarmen horren bidez, Euskaltelek JAGONET zerbitzuarentzako diru-laguntza eman dio Euskaltzaindiari eta Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoko datutegia dauka bere ordenagailuetan (www.euskaracorpora.net) horren kostua bere gain hartuz.

V.9. EITB

Euskal Irrati Telebistak (EiTB) -horren sozietate Euskal Telebista, Eusko Irratia eta Radio Vitoria barne- eta Euskaltzaindiak lehendabiziko *Lankidetza-hitzarmena* sinatu zuten 2003an, hiru urterako.

Akordio horren arabera, bi erakundeen arteko lankidetza jarduerak hiru arlokoak dira: lexikoa, batez ere onomastika alorrean, eta bereziki EiTBn erabiltzen diren toponimo, exotoponimo, antroponimo eta abarri lotua; hizkuntzaren gramatika; eta ahoskerari buruzko arauak eta jarraibideak, hizkuntzaren ahozko erabilerarekin lotuak.

Bestalde, hitzarmen horren ildotik, hiru txosten helarazi dizkio Euskaltzaindiak EiTBri, eta hauek izan dira gai nagusiak: "g" eta "j"-ren erabilerari buruzko irizpideak; artikulua toponimo eta izen propioetan duen erabilera, toponimo batzuen izen egokia; *bere(n)*

burua, eskegi / eseki; bota, lotu, lehortu, garbitu, orraztu, topatu, sentitu, agurtu, entrenatu eta begira aditzen erregimena; bi golez edo bi golengatik galdu-ren egokitasuna.

V.10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA

Urriaren 21ean, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak lehen-dabiziko *Lankidetzeta-hitzarmena* sinatu dute, Akademiaren egoitzan. Bost urteko iraupena duen hitzarmen horrek, bi erakundeen arteko loturak sendotzea du helburu, elkarren aitorpenetik abiatuz.

Ikastolen Konfederazioaren izenean Pedro Aranburu lehendakariak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Sinatzeaz gain, prentsaurrekoa ere eman dute, J. Iñaki Etxezarreta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren zuzendari eta Andres Urrutia Euskaltzaindiko *Jagon* sailburuarekin batera. Hauek biok, hitzarmenaren nondik norakoak azaldu dituzte. Bestetik, Gipuzkoako eta Nafarroako Ikastolen Elkarteetako lehendakariak ere sinatze ekitaldian izan dira –Jose Ramon Zubizarreta eta Xabier Azanza, hurrenez hurren– bai eta Joseba Aginagalde, Arabako Ikastolen Elkarteko zuzendaria ere.



Egoitzan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin hitzarmena sinatzen, 2004-X-21ean. **Ezkerretik eskuinera:** Andres Urrutia, Pedro Aranburu, Jean Haritschelhar eta J. Iñaki Etxezarreta.


**VI. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia /
Organigrama de Euskaltzaindia /
Organigramme et répertoire d'Euskaltzaindia:**

**VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak /
Relación de académicos y cargos /
Académiciens et responsables**

**VI.2. Batzordeen zerrendak /
Comisiones académicas /
Commissions académiques**

**VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama /
Organigrama de la Real Academia de la Lengua
Vasca / Euskaltzaindia /
Organigramme d'Euskaltzaindia**

**VI.4. Aurkitegia /
Directorio /
Répertoire**



VI.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK / RELACION DE ACADÉMICOS Y CARGOS / ACADÉMICIENS ET RESPONSABLES

EUSKALTZAIN OSOAK / ACADÉMICOS DE NÚMERO / ACADÉMICIENS TITULAIRES

Patxi Altuna	Emile Larre
Jose Antonio Arana Martija	Juan Mari Lekuona (†)
Adolfo Arejita	Jose Luis Lizundia
Miren Azkarate	Beñat Oihartzabal
Pierre Charritton	Patxi Ondarra (†)
Jean-Louis Davant	Txomin Peillen
Xabier Diharce "Iratzeder"	Pello Salaburu
Patxi Goenaga	Juan San Martin (†)
Jean Haritschelhar	Ibon Sarasola
Andres Iñigo	Andres Urrutia
Xabier Kintana	Patxi Zabaleta
Henrike Knörr	Antonio Zavala

ZUZENDARITZA / JUNTA DE GOBIERNO / COMITÉ DE DIRECTION

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua / Presidente / Président
Henrike Knörr, buruordea / Vicepresidente / Vice-président
Xabier Kintana, idazkaria / Secretario / Secrétaire
Jose Luis Lizundia, diruzaina / Tesorero / Trésorier
Beñat Oihartzabal, **Iker** sailburua / Director de la Sección de Investigación /
Directeur de la Section de Recherche
Andres Urrutia, **Jagon** sailburua / Director de la Sección Tutelar / Directeur de la
Section de Sauvegarde

* * *

ORDEZKARIAK / DELEGADOS / DÉLÉGUÉS

Gipuzkoa / Guipúzcoa / Guipuzcoa : *Juan Mari Lekuona* (†) (Laguntzaile / Adjunto
/ Adjoint : *Ana Toledo*)
Araba / Álava / Alava : *Henrike Knörr*
Nafarroa / Navarra / Navarre : *Andres Iñigo*
Iparraldea / Pays Basque Nord : *Pierre Charritton*

* * *

ERAGILEAK / GESTORES / RESPONSABLES

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea / Gerente / Gérant

Pello Telleria, idazkariordea / Vicesecretario / Secrétaire adjoint

Prudentzio Gartzia, bibliotekako zuzendaria / Director de la Biblioteca / Directeur de la Bibliothèque

Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea / Gestor de publicaciones / Responsable des publications

HITZARMENAK / CONVENIOS / CONVENTIONS

Erakundea / Institution	Ordezkarria / Délégué
Deustuko Unibertsitatea / Universidad de Deusto / Université de Deusto	Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia
EUDEL / Asociación de Municipios Vascos / Association des Communes Basques	Diruzaina, Idazkariordea
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco / Université du Pays Basque	Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina
Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria / Mairie de Vitoria	Arabako ordezkaria
Eusko Jaurlaritzaren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak / Gobierno Vasco y las Diputaciones de la CAV / Gouvernement Basque et les Députations de la CAB	Burua, Idazkaria, Diruzaina, <i>Iker</i> eta <i>Jagon</i> sailburuak
Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra / Gouvernement de Navarre	Burua, Idazkaria, Diruzaina, Nafarroako ordezkaria
UZEI	Idazkaria, Diruzaina

VI.2. BATZORDEEN ZERRENDAK / COMISIONES ACADÉMICAS / COMMISSIONS ACADÉMIQUES¹

IKER SAILA / SECCIÓN DE INVESTIGACIÓN / SECTION DE RECHERCHE

Sailburua / Director / Directeur : Beñat Oihartzabal

I. HIZTEGIGINTZA batzordea / Comisión de LEXICOGRAFÍA / Commission de LEXICOGRAPHIE

Burua / Presidente / Président : Ibon Sarasola

Batzorde hau bi azpibatxordetan banatzen da / Esta comisión se divide en dos subcomisiones / Cette commission se divise en deux sous-commissions :

I.1. Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) lantaldea / Equipo de trabajo del Diccionario General Vasco (OEH) / Groupe de travail du Dictionnaire Général de la Langue Basque

Arduraduna / Responsable : Iñaki Segurola

Kideak / Miembros / Membres : Arantza Egia, Ainara Estarrona, Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Amaia Olabarria, Ainhoa Otamendi.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea / Equipo de trabajo del Vocabulario Unificado / Groupe de travail du Dictionnaire Unifié

Arduraduna / Responsable : Jose Antonio Aduriz

Kideak / Miembros / Membres : Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain.

II. GRAMATIKA batzordea / Comisión de GRAMÁTICA / Commission de GRAMMAIRE

Burua / Presidente / Président : Patxi Altuna

Idazkaria / Secretario / Secrétaire : Jesus Mari Makatzaga

Kideak / Miembros / Membres : Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charriton, Andolin Eguzkitza (†), Juan Garzia, Patxi Goenaga, Nora Iriarte, Alan King, Itziar Laka, Jose Mari Larrarte (†), Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Patxi Ondarra (†), Paskual Rekalde, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

¹ Izendapen hauek (2003-III-28) 2003 eta 2004rako dira / Estos nombramientos son para el bienio 2003-2004 / Ces nominations concernent les années 2003 et 2004.

III. DIALEKTOLOGIA batzordea / Comisión de DIALECTOLOGÍA / Commission de DIALECTOLOGIE

Burua / Presidente / Président : Beñat Oihartzabal

Atlasgintza lantaldea / Equipo de trabajo del Atlas Lingüístico / Groupe de travail de l'Atlas Linguistique

Arduradunak / Responsables : Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

Kideak / Miembros / Membres : Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Juan Antonio Letamendia, Koro Segurola.

IV. ONOMASTIKA batzordea / Comisión de ONOMÁSTICA / Commission d'ONOMASTIQUE

Burua / Presidente / Président : Andres Iñigo

Idazkari / Secretario / Secrétaire : Mikel Gorrotxategi

Kideak / Miembros / Membres : Patxi Galé, Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan San Martin (†), Amaia Usabiaga.

Exonomastika / Exonomástica / Exonomastique

Arduraduna / Responsable : Jose Luis Lizundia

Kideak / Miembros / Membres : Gidor Bilbao, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers

Jean-Louis Davant, Jose Antonio González Salazar, Hector Iglesias, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza, Patxi Ondarra (†), Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Bernardette Soulé, Patxi Uribarren.

V. LITERATURA batzordea / Comisión de LITERATURA / Commission de LITTÉRATURE

Burua / Presidente / Président : Juan Mari Lekuona (†)

V.1. Herri Literatura azpibatzerdea / Subcomisión de Literatura Popular / Sous-commission de Littérature populaire

Arduraduna / Responsable: Juan Mari Lekuona (†)

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Pello Esnal

Kideak / Miembros / Membres: Jose Mari Aranalde (†), Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea / Subcomisión de Investigación Literaria / Sous-commission de Recherche littéraire

Arduraduna / Responsable / Responsable: Juan Mari Lekuona (†)

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Lourdes Otaegi

Kideak / Miembros / Membres: Xabier Altzibar, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Iratxe Retolaza, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

**VI. EUSKARA BATUKO batzordea / Comisión de EUSKERA UNIFICADO /
Commission de BASQUE UNIFIÉ**

Burua / Presidente / Président: Pello Salaburu

Idazkaria / Secretaria / Secrétaire: Miren Azkarate

Kideak / Miembros / Membres: Patxi Altuna, Andolin Eguzkitza (†), Xabier Kintana,
Henrike Knörr, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

VII. JAGON SAILA / SECCIÓN TUTELAR / SECTION DE SAUVEGARDE

Jagon sailburua / Director / Directeur: Andres Urrutia

VII.1. Corpus batzordea / Comisión del Corpus / Commission du Corpus

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak / Miembros / Membres: Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal,
Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren,
Paskual Rekalde.

**Euskalkien lantaldea / Grupo de Trabajo de los Dialectos / Groupe de tra-
vail des Dialectes:**

Arduraduna / Responsable: Paskual Rekalde

Kideak / Miembros / Membres: Kaxildo Alkorta, Jon Aurre, Juan Luis Goikoetxea,
Patxi Iñigo, Nagore Etxebarria, Manu Ormazabal, Alazne Petuya.

**VII.2. Sustapen batzordea / Comisión de Promoción / Commission de
Promotion**

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Andres Iñigo

Kideak / Miembros / Membres: Erramun Baxok, Pierre Charriton, Aingeru Epaltza,
Henrike Knörr, Juan Mari Lekuona (†), Erramun Osa, Manuel Maria Ruiz
Urrestarazu.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers: Juan San Martin (†), Jose Luis Lizundia.

* * *

**EGITURAZKO BATZORDEAK / COMISIONES ESTRUCTURALES / COMMISSIONS
STRUCTURELLES**

**VIII. ARGITALPEN batzordea / Comisión de PUBLICACIONES / Commission des
PUBLICATIONS**

Burua / Presidente / Président: Jean Haritschelhar

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak / Miembros / Membres: Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal,
Andres Urrutia, Andolin Eguzkitza (†), Pello Salaburu.

**IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea / Comisión BIBLIOTECA AZKUE / Commission
de la BIBLIOTHÈQUE AZKUE**

Burua / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Prudentzio Gartzia

Kideak / Miembros / Membres: Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza (†),
Agurtzane Juanena, Jose Mari Larrarte (†), Gerardo Luzuriaga, Juan San Martin (†).

Aholkulariak / Asesores / Conseillers: Joseba Agirreazkuenaga, Henrike Knörr.

X. LEGE-EKONOMIA batzordea / Comisión ECONÓMICO-JURÍDICA / Commission ÉCONOMICO-JURIDIQUE

X.1. Lege azpibatzerdea / Subcomisión jurídica / Sous-commission juridique

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Jose Luis Lizundia

Kideak / Miembros / Membres: Jose Antonio Arana Martija, Jon Artatxo, Abel Muniategi, Patxi Zabaleta.

X.2. Ekonomia azpibatzerdea / Subcomisión económica / Sous-commission économique


Burua / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Juan Jose Zearreta

Kideak / Miembros / Membres: Xabier Erdozia, Sebastian Garcia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose Maria Makua Goienetxe.

**VI.3. EUSKALTZAINDIAREN ORGANIGRAMA /
ORGANIGRAMA DE EUSKALTZAINDIA /
ORGANIGRAMME D'EUSKALTZAINDIA**

E U S K A L T




Z A I N D I A

BLÉ PLÉNIÈRE

GOBIERNO / DIRECTION

ENCARTE / GÉRANT



VI.4. HELBIDEAK / DIRECTORIO / RÉPERTOIRE

EGOITZA / SEDE / SIÈGE

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf. : (00-34) 94 415 81 55
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44
E-mail : info@euskaltzaindia.net
[Http://www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)
Kudeatzailea / Gerente / Gérant : Juan Jose Zearreta

PRENTSA ZERBITZUA / SERVICIO DE PRENSA / SERVICE DE PRESSE
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: prentsa@euskaltzaindia.net
Arduraduna / Responsable : Amaia Okariz

ARGITALPEN ZERBITZUA / SERVICIO DE PUBLICACIONES / SERVICE DES PUBLICATIONS
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: rbadiola@euskaltzaindia.net
Arduraduna / Responsable : Ricardo Badiola Uriarte

AZKUE BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA AZKUE / BIBLIOTHÈQUE AZKUE
Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf. : (00-34) 94 415 27 45
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44
E-mail: azkuebib@euskaltzaindia.net
Zuzendaria / Director / Directeur : Pruden Gartzia

ONOMASTIKA ZERBITZUA / SERVICIO DE ONOMÁSTICA / SERVICE D'ONOMASTIQUE
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO

Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: mikelonoma@euskaltzaindia.net
Arduraduna / Responsable : Mikel Gorrotxategi

GORDAILUA / ALMACÉN / DÉPÔT
Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km
Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf. : (00-34) 94 440 62 58
E-mail: jartza@euskaltzaindia.net
Arduraduna / Responsable : Jon Artza

ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES / DÉLÉGATIONS

ARABA / ÁLAVA / ALAVA
San Antonio, 41
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telf. : (00-34) 945 23 36 48
Faxa / Fax : (00-34) 945 23 39 40
E-mail: gasteizordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Henrike Knörr

GIPUZKOA / GUIPÚZCOA / GUIPUZCOA
Hernani, 15
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Telf. : (00-34) 943 42 80 50
Faxa / Fax : (00-34) 943 42 83 65
E-mail: donostiaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue : Juan Mari Lekuona (†) (Ana Toledo, laguntzai-
lea / adjunta / adjoint)

NAFARROA / NAVARRA / NAVARRE
Conde Oliveto, 2, 2. eskuin
31002 IRUÑEA / PAMPLONA
Telf. : (00-34) 948 22 34 71
Faxa / Fax : (00-34) 948 21 07 13
E-mail: nafordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue : Andres Iñigo

IPARRALDEA / PAYS BASQUE NORD
Thiers, 18. 1
64100 BAIONA / BAYONNE
Telf. : (00 33) (0) 559 25 64 26
Faxa / Fax : (00 33) (0) 559 59 45 59
E-mail: baionaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue : Pierre Charritton





